

Kraskitinek bere 35. urteurrena ospatuko du, zapatuan, San Agustinen

Durango • Dantza taldeko familia osoa batuko da biharko ikuskizunean. 125 dantzari elkartuko dira oholtzan. • **26-27**



Ahobizi ala belarriprest?

Euskaraldiak ekin dio bere bideari. Gaurtik hasita abenduaren 2ra bitartean, martxan da euskararen erabilera indartzeko ariketa kolektiboa. Ahobizi edo belarriprest rola aukeratuta hitzez ekiteko garaia da. • **5**



Gehigarria



ARGENTINAKO ENPANADAREN BENETAKO ZAPOREA HELDU DA DURANGORA!



Eskaneatu QRa eta ezagutu guri buruz gehiago!

BISITA GAITZAZU:  FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 3 |  623 168 280





Tokikom sariak banatu dituzte oraintsu.

Hamarkada bat tokikoak saretzen

Tokikomek, euskarazko tokiko komunikabideen sareak, bere sorreraren urteurrena ospatu zuen azaroaren 11n, ArantzazuLABen; egindako ibilbidea aitortu eta txalotu zuten

ERREPORTAJEA • IRAITZ AGIRRE ARANGUREN

Euskararen normalizazioaren bidean hamarkada oparoa izan zen 1980koa, orduan sortu baitziren herri askotan euskara elkarteak eta euskararen erabilera sustatzeko lehen herri aldizkariak. 90eko hamarkadan etorri zen jauzia, 40 bat elkartek euren tokiko komunikabideak sortu zituzten eta.

Hego Euskal Herriko elkarten eta tokiko komunikabideen indarrak batu eta arazoak elkarrekin konpontzeko helburuarekin sortu zen, 1993an, Euskaltzaleen Topagunea, eta, haren baitan, Hedabideen Saila ere martxan jarri zen. Sektorearen behar bereziei modu eraginkorragoan erantzuteko beharrak, ordea, Hedabideen Sailari izaera propioa

ematea eskatzen zuen, eta horren ondorioz sortu zen Tokikom, 2012an.

Iragan urteetako erronkak ez dira makalak izan Tokikomentzat, baina datozenak ere ez dira nolanahikoak izango. Adimen artifizialaren garapena, autofinantzaketa iturri berrien arakatzeari, eta komunikabideen arteko

solaskidetza indartzea dira kezka nagusiak. "Ondo landutako aterkipe" batean daudela nabarmendu du Tokikomeko lehendakaria den Iban Arantzabalek. "Gauzak egin ahala, hobetzen eta efizienteago bihurtzen joan gara, hedabide bakoitzarentzat ekarri handiagoa lantzen. Tokikomen inplikatzeari eraginkorragoa izatea dakar. Ez balego, sortu egin beharko litzateke. Komunikabideen sare batetik komunikazio talde izatera pasa gara eta gisa honetako komunikazio talde batek egin beharko litzatekeenak garatzeko funtzioa dugu.

Zero kilometroko komunikazioan dihardugun tokiko komunikabideok ondo landutako aterkipe batean gaudela sentitzen dugu". 2015az geroztik zuzendaritzako kidea den Alaitz Artolazabalek erronka handitzat du elkarlana. "Tokikom osatzen dugun komunikabideon arteko elkarlanean gehiago sakondu behar dela uste dut, elkarlan hori gure egunerokotasunean integratu behar dugula, bakoitzak tokikoa ondo zaindu eta lantzeko konpromisoarekin, baina zeharkako bestelako lanak ere konpartituz".

Komunikazio taldea

Hasieran tokiko komunikabideak taldekatzeko marka gisa sortu bazen ere, egitasmo trinkoa eta indartsua da hamar urteren ostean. Egun, 28 bazkidek osatzen dute Tokikom Komunikazio Taldea, eta, guztira, 76 hedabide kudeatzen dituzte: 32 webgune, 28 aldizkari, bost telebista eta bederatzi irrati. Hain zuzen, 240 langilek dihardute taldeko komunikabideetan eta Euskal Herri osoan 307 udalerritar iristen dira.

Egindako ibilbidearen nondik norakoak ezagutu eta Tokikom osatzen duten bazkideen aniztasunari balioa emateko asmoz, urte hauetako protagonisten hitzak ekarri ditugu orriotara.



JASONE
MENDIZABAL

TOPAGUNEko zuzendaria

Ehunka euskara elkarte eta euskaltzale taldek osatzen duten Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek euskararen normalizazioaren estrategian tokiko komunikabideek izandako garrantzia azpimarratzen du: "Topagunea sortu zen momentutik egon dira komunikabideak erdigunean. Ez da kasualitatea Topagunearen lehen izena Euskara Elkarten eta Herri Aldizkarien Federazioa izatea".

Solaskidetza bateratua

1997an sortutako elkartearen lehen egiteko nagusiak euskara elkarten saretzea, euskarazko kultur eskaintza sustatzea eta euskarazko hedabideen aldeko apustua artikulatzea izan ziren. "Arloka eta proiektuak antolatzen hasi ginen. Hedabide saila gure esparru kutunenetakoa zen. Bagenekien, euskal hiztunok eta komunitateak egunerokotasunean euskaraz funtzionatzeko ezinbesteko papera zutela hedabideek. Garai hartan herri komunikabideek paperezko prentsan jarri zuten indarra. Bakoitza bere herrian antolatzen hasi zen, ahal izan zuen moduan. Honek tokiko komunikabideak sektore bezala antolatzea ekarri zuen; hau aintzat hartzea ezinezko bilakatu zenean, Tokikom izango zena garatzeko oinarri nagusiak jarri ziren".



MIKEL
IRIZAR

TOKIKOMeko lehendakari ohia (2012-2014)

2011. urtean hasi zen Tokikom gorputz propioa izaten. Topaguneko lehendakari zen Mikel Irizar Tokikomeko lehendakari bihurtu zen orduan, komunikabideen sektoreak bizi zuen egoeraren aurrean antolatu eta artikulatzeko premiak animatuta. Irizarren hitzetan, Tokikom sortzea premiazkoa zen. 1990eko hamarkadaz geroztik euskara elkarteak eta tokiko komunikabideak sortuta zeuden, baina "bakoitza bere herrian antolatzen zen, edo tarteka eskualde mailako proiektuak ere sortu ziren. Txiki geratutako proiektuak ere baziren. Tresnak konpartitzeko eta publizitatearen gaiak hausnartzeko behar handia zegoen".

Ahuleziaren baturatik, indarra

Tokikom ahuleziak batu eta gauza asko egitearen adibide dela dio Irizarrek. "Ahuleziatik indarra ere ater daiteke, lankidetzarako ikuspegia eta borondatea badago. Tokikomen ahuleziak zein indarra zeuden. Goiaren esperientzia ezagutzen genuen, eta taldekatzeak zekartzan abantailak ere bai. Euskal komunikabideen sektorea bi solairuko etxea bezala irudikatzen genuen, behean tokikoak, herritarrekin informazioa lantzen; bigarrenean nazio mailakoak, eta tartean, igogailuak. Formulazio honek egokia izaten jarraitzen du".



INAZIO
ARREGI

TOKIKOMen lehen zuzendaria

2012an Tokikomeko lehen zuzendari bihurtu zenean, Inazio Arregi Goiena Komunikazio Taldeko zuzendaria zen. Krisi ekonomikoak Tokikomen sorreraren beharra azkartu zuela azpimarratzen du Arregik: "Nahiz eta ordura arte erakundeek euskarazko komunikabideetan jartzen zuten publizitatea oso txikia izan, hor ere beherakadak etorri ziren. Diru laguntzak murriztu egin ziren eta larritasunari erantzuteko asmoz hasi ziren hedabideak batzen; tokiko hedabideak ez ezik, euskarazko hedabide guztiak. Bi egitasmo paralelo sortu ziren orduan: batetik, Hekimen, herri ekimeneko euskarazko komunikabideen sarea; eta, bestetik, Tokikom, tokiko komunikabideen taldea.

Tresnen garrantzia

Elkarlana esparru askotan izan zela dio Arregik, eta digitalizazio prozesua gakoa izan zela. "Plataforma digital komuna garatu genuen, eta gaurkotatutako gaiak jorrazteko aukera ematen zuen. Horrek egunerokotasunera jaitsi beharra esan gura zuen. Prestakuntza eta plataforma digital bateratua martxan jartzeak argi asko piztu zituen. Gure produktuak homogeneizatu eta hedabideak taldekatzeko bidea zabaldu zen horrela".



JOSU
AZPILLAGA

CODESYNTAX enpresako kidea

Tokikomen sorrerako lehen apustua tokiko komunika-bide guztientzako baliagarria izango zen plataforma digital baten garapena izan zen. Codesyntax enpresako Josu Azpillagari egokitu zitzaion erronkari heltzea. "Tokikom duela hamar urte etorri zen guregana. Ordurako esperientzia puntual batzuk bagenituen garapen digitalaren esparruan, hainbat hedabiderentzat webguneak, atari eta plataforma digitalak diseinatu genituen eta. Tokikometik etorritako enkargua hori dena birpentsatu eta erabilgarri bihurtzea izan zen; tokiko hedabide guztiei balioko zien plataforma digital bat sortzea, hain zuzen ere. Elkarrekin ikasiz eta tresna komunak garatuz, gastuak aurrezteko aukera baliatu nahi zen horrela".

Enkargu bikoitza

Bi eginkizun jaso zituzten Codesyntaxeko kideek: "Batetik, plataforma horren ezaugarri eta funtzio nagusiek zeintzuk izan beharko luketen pentsatzea. Horrelako hedabide digital berri batek zein atal beharko lituzkeen diseinatzen hasi ginen orduan. Diseinatu genuen horri forma ematea izan zen bigarren enkargua, bai teknologikoki eta baita funtzionalitatearen ikuspegitik ere. Denok batera talde mailan erantzutea zen xedea; betiere, azken erabiltzailea kontuan hartuta".



JUAN KRUZ
LAKASTA

EUSKALERRIA IRRATIko kidea

Euskalerria Irratia 1988an sortu zuten Iruñerriko hainbat euskaltzalek, Iruñean euskarazko irrati bat sortu eta Euskadi Irratiaren seinalea zabaltzeko helburuarekin. Hasieratik ekin zioten tokiko kazetaritza, nazio ikuspegia, funtzio publikoa zein herri ekimeneko izaera uztartu eta tartekatzeari. "Hori dena oso bat zetorren Tokikomen izaerarekin", azpimarratzen du Juan Kruz Lakastak. "Hasieratik nahiko zakur berde ginela konturatu ginen. Izan ere Tokikomeko hedabide gehien-gehienak paperezkoak ziren, hiriburuetatik at garatutakoak, oso eremu euskaldunetan sortuak eta oso hizkuntza komunitate trinkoetara bideratuak". Horiek tokiko kazetaritzaren aldeko apustua egin zutela dio: "Gure proiektua bestelakoa izan den arren, filosofiarekin oso bat gentozen. Saretzearen alde egon gara eta egonen gara beti. Horregatik sartu ginen Tokikomen".

Bakarrik ezin da

Datozen urteotara begira zer espero duen galdetuta, bidea elkarrekin egiten jarraitzean jartzen du indarra. "Sare sozialetan azkenaldian esan ohi den bezala, bakarrik ezin da, lagunekin bai. Segi dezagun elkar laguntzen bidean aurrera, aldapak pikuagoak izaten baitira bakarrik zoazelarik".



GOIZEDER
ANTON

GUAIXEko kidea

Sakanako Guaixe 1994an sortu zen, unibertsitatean kazetaritza ikasten ziharduten hiru neskaen ekimenenez. Euskaltzaleekin harremanak sustatzen hasi eta elkarrekin Guaixe hilabetekaria argitaratzeaz arduratuko zen elkarte sortu zuten. Hainbat urteren ostean, Oixe astekaria argitaratzeari ekin zioten 2001ean. "Euskaltzaleekin harremanak sendoak izan dira, eta horren adierazgarri da Topaguneko kide ere bagarela hasieratik. 2012an Tokikom sortu zenerako, esan daiteke jada dinamika horretako parte ginela. Tokikomen sartu ginen sorreratik hausnarketa eta talde dinamikan parte hartzeko. Tokikomek sekulako babesa ematen digu", dio Antonek. "Taldea aritzeak beti laguntzen du, bai publizitatean, bai baliabide teknologikoak negoziatzerakoan eta abar. Babesa azpimarratu nahi dut, benetan horrela sentitzen dugu eta. Hastapenetik orain arte".

Akuilu eta babesa

Beste funtzio garrantzitsu bat akuiluarena dela dio. "Askotan, gure errealitate zentratu horretatik burua altxatzen laguntzen digu, batzuetan nahi genukeena baino erritmo azkarragoetan doazelako proiektuak. Tokikomek egiten duen akuilu lana oso lagungarria da gure errealitatetik aterarazteko".



IBAN
ARREGI

HEKIMENeko lehendakaria

Tokikomek bezala, hamarkada bat beteko du aurten Hekimen elkarteak ere, herri ekimeneko euskarazko komunikabideen elkarlana bideratzeko sortutako taldeak. Bertako lehendakaria da Iban Arregi, *Berria*-ko kidea, 2014az geroztik. Haren hitzetan, euskarazko komunikabideek indartuta dute momentuko erronkei aurre egiteko muskulua, baina beharra ere ez da nolanahikoa. "Gurea bezalako elkarte batek izaera ezberdin eta pluralak kudeatu behar ditu, baina kontuan hartu behar da ahots bateratua izatea dela izan dezakegun tresnarik potenteena, bai administrazioari begira eta baita gizarteari begira ere. Hori oso tresna indartsua da, eta balioa eman behar zaio, askotan gutxietsi egiten dugu eta".

Elkarlanean sakontzen

Sektore barruko eragileen arteko elkarlana oso sendoa izan da orain arte, eta horrela izaten jarraituko duela uste du: "Orain arteko elkarlan horretan oraindik eta gehiago sakontzen jarraitu behar dugu, are eta gehiago saretzen. Normala den bezala, desegonkortasun egoerek kezka sortzen dute eta beldurrak mugitzeko zailtasunak eragiten dituzte, baina ea lortzen dugun denon artean aurrera egin eta pauso gehiago ematea".



JONE
GUENETXEA

TOKIKOMeko lehendakaria (2017-2021)

Pandemia betean egokitu zitzaion Anbotoko kide Jone Guenetxeari Tokikomeko lehendakaritza. "Gure jardura esentziala zela esan zitzaigun hedabideoi. Orduan ikusi genuen hala zela, ez esan zitzaigulako baizik eta gure irakurle eta audientzien aldetik oso erantzun ona izan genuelako. Gure audientziak bikoiztu egin ziren eta horrelako krisi egoera batean jendeak gertuen gertatzen dena jakin gura duela konturatu ginen. Horregatik darabilgu zero kilometroko komunikazioaren kontzeptua. Tokiko kazetaritza bertatik bertara egiten da, berriak eta informatzaileak dauden tokitik bertatik".

Indargune nagusiak

Lehendakari izan zen garaian horrelako kargu batek dakarren arduraz asko galdetzen zioten Guenetxeari, baina "Tokikomek indarra badu ez da lehendakari bat edo bestea duelako, administrazio kontseilu bat eta Tokikomen alde lan egiteko prest dauden bazkide eta kideak dituelako baizik". Argi dauka bazkide diren hedabideek Tokikomekiko duten inplikazio eta sinergiagatik sortzen dela beronen aldeko indarra. "Karguak beharrezkoak dira, baina garrantzitsuenak elkarlana eta parte hartzea dira".



BEA AZTIRI
ETA ASIER ABRISKETA

BEGITUko kazetariak

Tokikomen sartu den azken tokiko komunikabidea da Arratiako Begitu. 2001ean sortu zen, Zertu Elkartearekin batera. Bertako kideak dira Bea Aztiri eta Asier Abrisketa. Lehenak sortu zenetik dihardu Begitun lanean; bigarrena, berriz, Begitu Tokikomen sartu eta webgunearekin batera hasi zen bertan. "Hasieran, *Begitu* paperezkoa zen, eta hilabetekaria. Gero hamabostekari izatera pasa zen, eta, iaztik hona, Tokikomi esker, salto digitala eman ahal izan dugu. Ez gara Tokikomera horregatik bakarrik batu, ordea, tokiko komunikabideen saretze honetatik eskaintzen zaizkigun baliabideak eta besteen esperientziak ezagutzeak laguntza handia ematen digu" dio Aztirik.

Tokikomen sartzeaz bi onura azpimarratu dituzte. "Alde batetik, alde teknikitik laguntza ikaragarria da Tokikometik eskainitako plataforma gure lana aurrera eramateko. Gu kazetariak gara, ez programatzaileak. Alde horretatik eskaintzen zaizkigun baliabideak oso lagungarri zaizkigu. Bestalde, saretzeari garrantzi handia ematen diogu, eta Tokikomek eman digu aukera hori. Euskal Herriko mapa bat margotzea polita bakarrik ez, uste dut oso beharrezkoa dela", dio Abrisketak.



Jesuitak ikastetxean egindako aurkezpena.

Salmenta makina bat kalean, eskolako menuak behar dituenari helarazteko

Jesuitak ikastetxeko ikasleek proiektu berri bat sortu dute, eskolako jantokian egunero-egunero zerbitzatu barik geratzen diren menuei irtenbide solidario bat topatzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Datu batek sortu du dena: Jesuitak ikastetxeko jantokian 650 bat menu ematen dituzte egunero-egunero, baina eurretan batzuk zerbitzatu barik geratzen dira. Hori dela eta, zerbitzatu barik ge-

Proiektuan udalak, Ausolanek eta Residuo Zero Fundazioak esku hartzen dute

ratzen diren menuei irtenbide bat ematea pentsatu dute ikastetxeko ikasleek: Janariprest proiektua ipini dute martxan. Hau da, salmenta makina bat ipini dute Kurutziaga kalean, beharizana daukanak bertatik menuak debalde eskuratzeko aukera izan dezan. Norabide biko proiektua egin dute horren-

bestez. Janaria alferrik galtzea eragozten dute batetik, eta beharizana duenari laguntzea lortzen dute bestetik. Ikasleak arduratuko dira zerbitzua kudeatzeaz, eta bidelagun izango dituzte beste hainbat eragile. Tartean, Residuo Zero Fundazioa, Ausolan elikadura enpresa eta Durangoko Udala.

Ikasleak arduradun

Ikasleek hartuko dute proiektua gidatzeko ardura, eta lau ardatz nagusitan lan egingo dute. Batetik, kontsumitu barik geratu diren menuak ontzi konpostagarrietan ontziratuko dituzte, tenperatura prozesu ziur bat jarraituta. Behin hori eginda, ontziak behar den moduan etiketatzeaz, garraiatzeaz eta edukiaren iraungipena zaintzeaz arduratuko dira. Ontziak Kurutziaga kalean ipiniko dituzte, bertako janari-makinan. Azkenik, ontziak

dagokionari helduaraztea izango da erronka. Jesuitak ikastetxeko iturriek adierazi dute "beharizana duen edozeinek doan eta gura duenean", eskuratu ahal izango duela jatekoa.

Ikasleak arduratuko dira ontziratzeaz, iraungitze-datatz eta etiketak zaintzeaz

Ikastetxeko arduradunek adierazi dutenez, Janariprest proiektua ikastetxeko plan estrategikoaren parte da. Planaren ardatzetariko batzuk gizarteko parte hartzean eragitea, ekologia zaintzea eta inguruko eragileekiko elkarlana sustatzea dela esan dute. Hor kokatu dute asteon aurkezturiko proiektu hau.

Jaizalek bost kalejira eta beste hiru kontzertu programatu ditu

Txistulari elkarteak martxora arteko programa aurkeztu du 'Jaizale kalez kale, auzoz auzo neguan' izenpean

DURANGO • A.M.

Jaizalek berritzearen aldeko apustua egin du aurten ere, kalejiretan txistu ikasle gazteak sartuta. Alde horretatik, Bartolome Ertzi-lla Musika Eskolaren "laguntza etengabea" eskertu dute. Kalejirak azaroaren 22an (Santa Zezilia, musikarien eguna) eta 27an,

abenduaren 8an (Durangoko Azoka) eta 24an (Gabonak) eta datorren urteko martxoaren 11n egingo dituzte. Kontzertuak abenduaren 18an (Gabonetako kontzertua) eta martxoaren 11n (La Musgña taldeagaz) emango dituzte. Hirugarren data bat ere badute buruan.



4.000 eurora arteko laguntzak prest Durangoko ekintzaileentzat

Udalak laguntzak prestatu ditu enpresa proiektu bat hasi edo jarduera lekualdatzen dutenentzat

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak 40.000 euroko diru poltsa bat prestatu du enpresa proiektu berri bat sortu edo enpresa transmisio berri bati helden dioten ekintzaileei laguntzeko. Udalak irizpide hauekin banatu eta kalkulatu ditu laguntzak: negozioa berria bada edo jarduera establezimendu batera lekualdatzen bada, udalak inbertsio osoaren %40 lagunduko du diruz, 3.500 eurogaz, eta establezimendua Durangoko Alde Zaharretik kanpora badago, laguntzak 500 euroko gehigarria izango du. Establezimenduaren titulartasuna negozioaren eskualdatzeagaitik egiten bada, udalak inbertsioaren %40 lagunduko du, 1.000 eurogaz. Establezimendua Alde Zaharretik kanpora badago, laguntza 500

euro gehiagokoa izango da. Txikizkako merkatariei, ostalariei eta lokal hutsak hartu eta bertan jarduera ekonomikoak egiten dituztenei lagunduko diete diruz. Oinarriak durango.eus atarian kontsultatu daitezke eta eskae-

Txikizkako merkatariei, ostalaritzari eta lokal hutsak hartzen dituztenei lagunduko diete

rak azaroaren 17tik aurrera egin ahaliko dira, udalaren egoitza elektronikoan. Bertara sartu ezin direnek Herritarrentzako Arreta Zentroan aurkeztu ahaliko dituzte eskaerak.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko azaroaren 18a
21. urtea - 914. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Euskaraldia martxan, Durangalde osora zabaldu da txapak paparrean ipini eta "hitzez ekiteko garaia"

Euskaraldia martxan da gaurtik. Egitasmoa Euskal Herriko luze-zabaleran egongo da indarrean, abenduaren 2ra arte

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Belarriprestak, euskara aditzeko gertu; ahobiziak, mingaina dantzarazteko prest. Eta lantokietan euskara sustatzeko Ariguneak ere, ekinean. Gaurtik martxan da Euskaraldia, Euskal Herriko luze-zabalean hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua duen ariketa soziologiko eta kolektiboa. Euskaraldiko antolatzaileek azpimarratu dutenez, "hautuak harrotasunez erakutsi eta probatzeko garaia" da, "txapak ipinita ingurukoei gure nahia erakusteko garaia. Garaia da urrats sendoak emateko, hautu pertsonal eta kolektiboak gehituz bide berriak urratu eta ohiturak zein joko arauak aldatzeko", adierazi dute egitasmoaren bultzatzaileek manifestu bateratu batean. Alde horretatik, euskararen erabilera

alderik alde sustatzeko deia egin dute: "Auzorik auzo, herririk herri, jendea batu eta ekimen olatua antolatu dezakeen komunitatea da gurea. Ekinez egingo ditugu gure elkarte, enpresa eta erakundeak euskararentzat abegikor". Duran-

galdeko udalerriek bat egin dute egitasmoagaz eta herri bakoitzeko batzordeek egitarau oparoak prestatu dituzte. Astekari honetako Agendan kontsultatu daitezke ekitaldi guztiak, herririk herri eta egunik egun (23. orria). Bertso

afariak, zinema proiektzioak, antzerki obrak, blues kontzertuak, bakarrizketak zein erakusketak topatu daitezke bertan. Egitaraua oso anitza da, Euskaraldian parte hartzen duten kide eta eragileak bezainbeste.



Zaldibarko eskolako kideak.

Elkarrekin Podemosek lau hautagai aurkeztu ditu udal hauteskundeetarako

"Ahal duguna egingo dugu ezkerreko beste taldeekin berba egin eta zerrenda bakarra aurkezteko", esan dute



Ezkerretetik hasita, Alfonso Arroyo, Sabina Méndez eta David Hernández haugatagaiak.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elkarrekin Podemosek eskualdeko alkategaiak aurkeztu ditu. Alderdiko barne-hauteskondeak igarota, honako hauek izango dira alkategaiak: David Hernández (Durango), Alfonso Arroyo (Abadiño), Sabina Méndez (Berriz) eta Joseba Andoni Fernández (Elorrio). "Hautagai guztiok helburu bera dugu, gure herriarentzat eta herritarrentzat bizitza hobea lortzea", azaldu du Sabina Méndez Durangaldeko Podemosen bozera-mailak eta Berrizko Podemosen alkategaiak. "EAJk gobernatzen dituen herriak ez daude pertso-

nengan pentsatuta, inbertitu gura duren enpresentzako herriak dira: zarataren, kutsaduraren... herriak dira. Gu eredu horien kontra gauden eta gure ereduak herri atseginak gura ditu, herritarrek euren bizi proiektuak izateko", gaineratu du hautagai berriztarrek. David Hernández alkategaiak, bestalde, ezkerreko taldeen artean zerrenda bakarra sortzea proposatu du: "Jendeak ez luke ulertuko zerrenda bi egotea. Horregaitik, ahal dugun guztia egingo dugu ezkerreko beste talde batzuekin berba egin eta zerrenda bakarra aurkezteko", esan du.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA
AIRFLOW PERIODONTZIA
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO	GALDAKAO
ANDRA MARI KALEA 4	LAPURDI KALEA 18
944 008 235 - 688 766 973	944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO SARIAK



Errigorako
otzara bat.

**Anbotokide guztien
artean zozkatuko da.*



Zaldibarko koralak
antolatutako **Benito
Lertxundiren**
kontzertura joateko
sarrera bikoitza.
Azaroaren 26an.

**Eman izena gure webgunean.*



Hertzainak taldeak
abendua 17an
BEC-en emango
duen kontzerturako
bi sarrera bikoitz.

**Eman izena gure webgunean.*

IRABAZLEAK

Bazen behin musikaldia
(San Agustin Kulturgunea):

Aitziber Fernandez Madariaga

Zaldiaren esaldia ikuskizuna
(San Agustin Kulturgunea):

Ane Ormaetxea

La Basu, JMartina eta Txikiren
bakarrizketa (Udagoiena Ostera):

Idurre Baraia-Etxaburu

Mireia Nieto

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Heriotzari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen

Azaroaren 30ean, Aitor Monjek aurretiazko borondateei buruzko berbaldia emango du kultur etxean, 19:00etan

BERRIZ • A. M.

Heriotzak berezkoa duen tabu kutsua kentzeko asmoagaz, eta berau inguratzen duten gaiei buruz lasaiago berba egiteko helburuagaz, jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen. Lau solasaldik osatzen dute zikloa: lehenengoa eguaztenean izan zen. Bertan, Iñaki Peñak eta Anakotz Lasartek heriotza duinari buruz berba egin zuten. Hurrengoa azaroaren 30ean izango da. Aitor Monjek aurretiazko borondateari buruz berba egingo du. Abenduaren 14an,

Karmen Amezua doluaz mintzatuko da 'Doluaren prozesua eta doluaren mitoak' deituriko berbaldian. Laugarren eta azken solasaldia Izaskun Andonegik gidatuko du: 'Gabonak dira eta aulki hutsa dago etxean' deituko da saioa. Besteak beste, Iñaki Etxezarragak eta Jon Barcenak lekukotzak emango dituzte. Saio guztiak Berrizko Kultur Etxean izango dira, 19:00etan. Monjeren hitzaldia gaztelaniaz izango da; gainerakoak euskaraz eta gaztelaniaz.



Berrizko Kultur Etxea.

Boluntario bila dabiltza Olakueta Etxeko lanetan laguntzeko

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Berrizko Olakueta etxean, pertsona etorkinei aldi baterako harrera eskaintzeaz arduratzen dira batez ere. Besteak beste, lotura komunitarioa sortzeko eta indartzeko helburua du, eta, horretarako, euskarazko eta gaztelaniazko ikastaroak ematen dituzte, baita bestelako jardueratan konpontzeko baliabideak ere. Olakueta Etxearen jardunean, eta komunitatea egiterako orduan, boluntarioen lanak pisu handia eduki du. "Gertuko herrietako pertsonen parte hartzea oso garrantzitsua dela uste dugu; Olakueta Etxea zabaldu zenetik boluntarioak egon dira hemen, eta oso esperientzia ona izan da beti", azaldu du bertako langile batek. Orain, boluntario berriak lortzeko deialdia zabaldu dute. Durangaldeko boluntarioak behar dituztela zabaldu dute. "Adin aldetik ez dugu inolako mugarik ipintzen; laguntzeko gogoia edukitzea da garrantzitsua", azaldu du bertako langileetarik batek. "17 urteko boluntario bat dugu, eta 82 urteko beste bat; bakoitzak bere ekarpena egiten du", gaineratu du. Olakueta Etxea EDE Fundazioaren Suspergintzak kudeatzen du.

Zaldibarren garbigune mugikorra egongo da hilaren 24ra arte

Garbigune mugikorra Bizkaiko Foru Aldundiko plazan ipini dute, eta bertan egongo da azaroaren 24ra bitartean; Bizkaia garbiagoa lortzeko kontzientziatu gura dituzte

ZALDIBAR • A. M.

Birziklatzea erraztu eta herritarrei hurbiltzeko asmoagaz, Aldundiak 'Garbigune mugikorra' egitasmoa ipini zuen martxan. Asteon Zaldibarren ipini dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren plazan, eta bertan egongo da hilaren 24ra arte. Etxetresna elektriko txikiak, sukaldeko tresnak eta telefono mugikorrek bota daitezke bertan, besteak beste.

Laugarren desfibriladorea

Bestalde, Zaldibarko Udalak beste desfibriladore bat ipini du herrian, oraingoa kiroldegian. Laugarrena da. Aurrekoak Udaletxeko plazan, Olazar pilotalekuan eta Solobarriako futbol zelaian ipini zituzten.



Etxetresna elektriko txikiak, sukaldeko tresnak eta telefono mugikorrek bota daitezke.



Ostalaritza gida



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*

**Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari 4 behe, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2B - DURANGO
Tel.: 946 550 185
Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

**Durango**



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behe, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Iazko urte amaierako euriteetan Longan eta Urtian izandako lur-jausiak konponduko ditu Mallabiko Udalak, 200.800 eurogaz

Urtia industrialdera doan errepide ondoko lanak urrian egin ziren eta Longakoak joan zen astean hasi zituzten

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Iazko azaroan eta abenduan izandako euriteen ondorioz, lur-jausi bat baino gehiago gertatu zen eskualdean. Denetan handiena eta eragozpenik gehien sortu zuena Trabakua gainean gertaturikoa izan zen, baina ez bakarria. Mallabian beste bi ere izan ziren, Longa auzo inguruan eta herrigunetik Urtia industrialdera doan foru bidearen ondoan.

Orain, Mallabiko Udala lur-jausi horiek eragindako kalteak konpontzen dabil Longako landa-bidean eta Urtia errepidean. Longaren kasuan, lur mugimendu handia gertatu zen euri-jasa baten ondorioz, eta lurra bidearen iparraldeko hegalean pilatu zen, Longa auzotik gertu. Horren ondorioz, hainbat jarduketa egin behar izan dute bertan, mendi-hegala egonkortzeko, mendi-hegaletik datozen urak biltzeko eta bideratzeko, eta bideko zoladura berritzeko eta konpontzeko, besteak beste. Joan zen astean

hasi ziren Longako lur-jausiak eragindako kalteak konpontzen, eta hile honetan zehar amaitzea aurreikusten dute.

Urtiako lanak, urrian

Mallabiko herrigunearen eta Urtiako industrialdearen arteko bidean —Gomenziaga eta Ermua arteko BI-3302 foru errepidean— lehendik zeuden espaloien eta bidearen gainera jausi zen lurra, eta, ondorioz, errepideko tarte horretatik ezin zen oinezkorik eta ibilgailurik pasatu. Lur-jausiek eragindako kalteak konpontzen hasi aurretik, azterketa bat egin zuten. Azterketako emaitzak oinarri hartuta, ezpondaren egonkortasuna bermatzeko sistema malgu bat instalatu zuten urrian zehar egindako lanetan. Sistema horrek 25kc/m2-tik gorako euskarri-balioa bermatzen du. Horrela, bide horretan dabilzan oinezko eta ibilgailuentzat joan-etorri segurua "ziurtatzen" da, udal arduradunen esanetan.



Longa bideko zoladura konpontzen eta berritzen aritu dira, besteak beste.

Bizkaiko Foru Aldunditik 144.606 euroko diru laguntza jaso dute, eta estatutik 44.096 eurokoa

Diru laguntzak

Mallabiko lur-jausiek eragindako kalteak konpontzeko obrek 200.842 euroko kostua izango dute guztira. Inbertsioko zatirik handiena diru laguntza biren birtartez estaliko du udalak: Bizkai-

ko Foru Aldundiko ustekabeen programatik 144.606 euroko diru laguntza jaso dute eta estatuko hondamendi naturalen programatik beste 44.096 eurokoa, Mallabiko Udalak ohar batean azaldu duenez.

Izurtzarrek Gertufest jaialdiaren balorazio positiboa egin dute batzar zabalean

IZURTZA • J.D.

Joan zen astean, udalak Tokiko Agenda 21aren barruko batzarra egin zuen herritarrekin. Aurten udaletik egindako ekintzak bolatzea eta datorren urtera begira dauden erronkak azaltzea izan zen batzarraren helburua. Udalarren esanetan, jaietan nobedadea izan zen Gertufest jaialdiaren balorazio positiboa egin zuten herritarrek. Aldeko balorazio hori kontuan hartuta, datorren urteko jaietan ere Gertufest antolatzeke asmoa dutela dio Lorea Muñoz alkateak.



Jaietan Santo Tomas parkean egindako Gertufest jaialdiko irudia.

Hitano ikastaroa eta kantupoteoa Mañarian, Euskaraldiari ongietorria emateko

MAÑARIA • J.D.

Gaurtik aurrera martxan da Euskaraldia, euskararen inguruko ariketa kolektiboa, eta horren harira ekintza bi egingo dituzte Mañarian. Lehenengoa gaurko antolatu dute; 17:30ean hitanoaren inguruko ikastaro bat egingo dute berbakera horretan trebatu gura duenarentzat. Ondoren, 19:30ean, kantupoteoa egingo dute jai giroa herriko kaleetara ateratzeko.

Otxandioko Oreka egitasmoaren barruan bilera informatiboa, gaur

OTXANDIO • J.D.

Herritarrei energia berriztagarrietarako trantsizioan laguntzeko helburua duen energia komunitatea sortu eta garatzen dabilta Otxandion. Egitasmoak Oreka izena du, eta kooperatiba izaera. Oreaktik energia sortuntza proiektuaren azterketa egin dute eta gaur bilera informatiboa egingo dute emaitzak aurkezteko. 18:00etan izango da, Mainondoko gimnasioan.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Azaroan Berrizzen erosteak saria du!

DOAN

AZAROAREN 7tik 27ra
lotu Berrizko irudiak
dituzten 3 katiluren bilduma

***KANPAINAREN OINARRIAK:**
Pertsona bakoitzeko katilu bat opartuko da Berrizko establezimenduetan gutsimenez 306ko erosketa eginet (beharrezkoa da establezimendu ezberdinetako 3 erosketa txartel aurkeztea).
07-13 azaroa: 1 eredua
14-20 azaroa: 2 eredua
21-27 azaroa: 3 eredua
Kampainak 2022ko azaroaren 7tik 27ra bitartean egindako erosketetarako bakarrik balio du edo katiluk arautu arte.

Informazio gehiago:
www.berrizkoerakartari.eus

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2023

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoako estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

"Gaurtik aurrera kalean egongo gara berriro; edozein ate joko dugu, Harrera Herria garelako"

Atxondo Harrera Herrikoek prentsaurrekoa egin zuten martitzen arratsaldean, udaletxe azpian

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Atxondo Harrera Herriko kideak asteak daramatzate Axpeko aterpetxean sartu ezinda; azken aste hauek ziurgabetasun egunak izaten ari dira eurentzat. Urriaren 6an, Atxondoko Udalak esan zien ezin zirela Axpeko aterpetxean sartu, eta Harrerako kideak kalean daude harrezkero. "Ordutik hona, amets gaizto hau izugarria izan da. Harrera egoera honi irtenbidea bilatzen ahalegindu da, adostasunez, baina bidean zailtasunak baino ez

ditugu aurkitu udalagaz biltzeko eta komunikatzeko. Udalak izan duen gertutasun eza, egoeragazko ulermen falta eta irtenbide adostu bat bilatzeko borondate falta salatzen dugu. Bide honetan guztian ez dute gizatasunik erakutsi", azaldu dute Atxondoko Harrera Herriko kideek asteen emandako prentsaurrekoan.
Gainera, azaroaren 2an egindako bileran udalak hartu zituen konpromisoak ez dituela bete salatu dute eta Harrerak "konponbide

bat adosteko prestutasun osoa" erakutsi duela eta "bere gain harturiko konpromisoak" bete dituela azaldu dute. "Konbentzita gaude Harrera Taldeak Atxondon egiten duen lana ezinbestekoa dela, eta ezinbestekoa baita ere migrazioaren erronka kolosalaren aurrean denon artean aukerak eta erantzunak eraikitzea", jarraitu dute.
Hori horrela, eta irtenbide bat bilatzeko asmoz, gaurtik aurrera berriro kalean egongo direla jakinarazi dute. Udaletxe azpian kanpalekua muntatu dute eta "beharrezkoak" diren ate guztiak joko dituztela aitortu dute. "Gaurtik aurrera kalean egongo gara, Gasteizera joango gara eta Arartekoagaz hartu-emanetan ipini gara. Edozein ate joko dugu, Harrera Herria garelako. Uste dugu aukera dagoela egoera berbideratzeko, eta eskua luzatzen diogu udalari, berriz ere irtenbide adostu bat bilatzeko", amaitu dute.



Martitzen arratsaldean egindako prentsaurrekoko argazkia.

Abendu hasierarako skate parkea erabiltzeko prest izango dute Elorrión

San Roke eta Betsaide kaleen arteko lursailan egiten dabilta pista. Hasieran San Josen egin behar zuten



San Roke eta Betsaide kaleen artean egiten dabilta pista.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrioko Udalak jakinarazi duenez, San Roke eta Betsaide kaleen arteko lursaila patinatzeeko pista bihurtzeko lanak amaierara heltzen ari dira. "Hasierako asmotik gaur arte, parean izan ditugun zailtasunei alternatibak bilatu dizkiegu, eta, azkenean, parkea prest egongo da abendu hasierarako", azaldu du Idoia Buruaga alkateak prentsa ohar bidez.

Diseinuari dagokionez, gazteekin egindako parte hartze prozesuan jasorikoak eta adosturikoak txertatu dira. 620 me-

tro karratuko espazioa izango da. "Skate parke honetan gazte guztiak izango dute patinatzeeko aukera; izan ere, leku aproposa da hasiberrientzat, baina baita erakargarria ere maila bateko patinatzaileentzat", azaldu du alkateak.
Bestalde, udalak azaldu du lurzoru kutsatuak aurkitu zituaztenetik patinatzeeko pistari alternatibak bilatzen aritu direla, eta aurkitu dutela. "Bizkor hartu genuen erabakia, eremu berean alternatiba bilatu genuen eta lanak aurrera doaz", gaineratu zuen.

Zelaietako peatonalizazio prozesua gelditzeko 700 sinadura erregistratu dituzte

Orain arte baturiko sinadurak aurkeztu dituzten arren, Zelaietan eta Muntzaratzen sinadurak batzen jarraituko dute. Interneten bitartez ere egongo da aukera sinatzeko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Uztailetik urrira bitartean, Abadiñon sinadurak batzen ibili dira Zelaietako peatonalizazio prozesua gelditzea eskatzeko. Dagoeneko 700 sinadura batu dituzte.
Sinadura bilketaren bultzatzaileek azaldu dutenez, dokumentu hiru puntu eskatzen zaizkio udalari. Lehenengoa, une honetan egiten dabilzan peatonalizazio prozesua gelditzea eta fase berririk ez hastea. Bigarrena, Zelaietarako mugikortasun plana birformulaztea. Eta hirugarrena, Zelaietako peatonalizazio eta mugikortasun planari buruzko parte-hartze prozesuan sortzen diren proposamenak herri galdeketa eramatea.



Zelaietako herrigunea.

Aitor Bizkarra finalean sartzeko borrokatuko da bihar

Abadiñarrak finalurreko bigarren itzuliko lehenengo saioan abestuko du. Saioa bihar izango da, Amurrión

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Bihar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalurreko bigarren itzuliko lehenengo saioa jokatu da, Amurrión. Bertan, Aitor Bizkarra abadiñarra izango da kantuan, eta finalean

sartzeko borrokatuko da. Bizkarraz batera Agin Laburu, Alaia Martin, Miren Artetxe, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita arituko dira bertsotan. Saioa Bañuetako kiroldegian izango da, 17:00etan.



Durangoko saioko argazkia. *Bertsozale.eus*

Zornotzako emakumeen testigantzak jasotzen hasi dira bizipen guztiekin istorio bateratua osatzeko

Baturiko bizipenak eta sentimenduak oinarri hartuta, erakusketa bat eta dokumental bat sortzeko asmoa dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA
Zornotzako Udalak 'Emakume aintzindariak' hamaika emakume, hamaika istorio' egitasmoa hasi du, udalerrriaren bilakaeran parte hartu duten emakume zornotzar guztien lana omentzeko eta aitortzeko. Udalaren asmoa 40ko hamarkadatik hona gertaturikoak

jasotzea da, udalerrian bizi diren emakumeen ahotik. "40ko hamarkadatik aurrera zer gertatu zen, zornotzarrek zelan bizi izan zuten beste emakume batzuen etorrera gure udalerrira, zer suposatu zuen haientzat eta herriarentzat, ailegatutakoan zer topatu zuten", azaldu du Ainhoa Salterainek,

Berdintasun eta Gizarte Ekintza zinegotziak.

Horretarako, udalak postalak bidaliko ditu etxe guztietara. Egitasmoan parte hartu gura duten emakumeek postaleko alde zuria bete beharko dute, euren testigantzak, oroitzapenak, sentipenak, desirak eta bizipenak ipinita. Postal horiek gero udaletxera helarazi beharko dituzte. Parte hartzaileen artean hiru postal sarituko dituzte. 500 euroko balioa duten hiru Amorebono izango dira sariak. Behin postal guztiak batuta, udalak dokumentazio lan bat hasiko du, hurrengo urteko Martxoaren 8an erakusketa bat egiteko. Gerago, datorren urteko azaroan, emakume horien testigantzetan oinarrituriko dokumental bat estreinatuko dute.



Ainhoa Salterain Berdintasun zinegotzia.

Gailu teknologikoak sortzeko lehengaien atzean dauden urraketak, argitara

ZORNOTZA • E.H.
Zelaieta zentroak 'Zure mugikorrak ezkututzen duena' erakusketa hartuko du abenduaren 2ra arte. Erakusketa Ivan Benítez argazkilariak Rubayako meatzean (Kongoko Errepublika Demokratikoa) harturiko irudiek osatzen dute. Argazkiek gailu teknologikoak sortu ahal izateko lehengaien eta giza eskubideen urraketen arteko erlazioa erakusten dute. Alboan Gobernu Kanpoko Erakundearen esanetan, "urra gure mugikorrak fabrikatzeko erabiltzen den materiala da. Urre ekoizpenaren %80 legez kanpoko edo arautu bakoa da eta horrek indarkeriaren bideak errazten ditu". Alboanek "gatazka mineral" lez izendatzen du urrea.

Andoni Ibarra Muñoz, gurpil gaineko patinaje artistikoan garaile

Zornotzarrak haur kategoriako Euskadiko Kopa irabazi zuen joan zen domekan. Etxean irabazi zuen, Larrean

ZORNOTZA • E.H.
Zornotzak Euskadiko Patinaje Artistikoko koparen zortzigarren edizioa hartu zuen joan zen domekan. Haur kategorian, mutiletan, Andoni Ibarra Muñoz zornotzarra izan zen garaile. Ez da patinatzaile zornotzarrak

halako maila erakustaldia egin duen lehenengo aldia. Maiztzean, Euskadiko Txapelketa jokatu eta Espainiako Txapelketarako sailkatu zen. Zortzigarren postua eskuratu zuen han, Coruñan (Galizia) jokaturiko txapelketan.



Andoni Ibarra podiumeko lehenengo postuan.




Orozketa auzoan jarritako informazio panela.

Informazio panel berriak ipini dituzte lurretan

Udalak 3.000 euroko inbertsioa egin du auzoetako postontzien alboan hamalau informazio panel ipintzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretako Udalak informazio panel berriak ipini ditu, hamalau guztira. Auzoetako postontzien alboan ipini dituzte, bertako bizilagunek informazio gune bat izan dezaten. 3.000 euro erabili dituzte horretarako. Herrigunean dauden informazio panelen estetika berdina dute auzoetan ipinitakoek.

Guztien tamaina eta estetika bateratu dituzte. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "helburua da bizilagunek posta hartzeko gelditzen diren tokian informazio puntu bat izatea". Gaineratu du auzoetan dauden postontzirik zaharrenak eta hondatuenak kendu eta berriak ipiniko dituztela apurka-apurka.



Bertsolari Gazteen XXX. sariketako finalaurrekoetara sailkatu da Durangaldea

Barakaldon egingo den finalaurrekoan abestuko dute. Saioa azaroaren 23an izango da



Bilboko Urretxindorra ikastolan kantatuko saioko argazkia.

DURANGALDEA • M.Z.

Bertsolari Gazteen txapelketako hirugarren saioan Durangaldeko taldeak eta Busturialdekoak egin dute bertsotan. Durangaldeko taldeak Barakaldon egingo den finalaurrekorako sailkatu da. Azaroaren 23an izango da finalaurrekoa, 10:30ean, Hizkuntza eskolan; finala abenduaren 1ean izango da, Bilboko BBK aretoan, 18:00etan.

Durangaldeko taldean Maddi Aurtentzek, Kelmene Abaituak, Ixone Asategik, Irune Basagoitik, Ander Elorriagak eta Igor Galarzak egin dute bertsotan. Saioko aurkezlea Jone Larrinaga izan da, eta epaimahaia Beñat Romerok, Miriam Juaristik eta Juanjo Respaldizak osatu dute. Bilboko Urretxindorra ikastolan izan da saioa.

Politikan

Garazi Errasti Silloniz
EH-Bildu



Sutan gaude!

Heldu zaigu berriz Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna, emakumeon aldarrikapen eguna. Egia esan, ez da harro egoteko gaia. Hobe luke aldarrikapen egun horrek existituko ez balitz eta aldarrikatzeko ezer edukiko ez bagenu, baina tamalez ez da horrela.

Urte hauetan guztietan zehar egindako lanari esker, indarkeria matxistari masakara kentzea lortu dugu. Eta gauzak horrela, gero eta emakume gehiago gara edozein indarkeria jasanda, berau salatu eta publiko egiten dugunak, zenbat eta ikusgarritasun gehiago eman orduan eta errazago izango baita kontra egitea.

Ikusgarritasuna emateaz gain, politika eta zerbitzu publikoen indartzea ere bermatu beharra dago. Indarkeria matxistari aurre egiteko baliabide eta tresnak oinarritzeko premia legez jarri eta horiek sendotuz.

Zoritzarrez, datuak ez dira batere lasaigarriak: bi emakumetik batek indarkeria matxista sufritu du bere bizitzan zehar. Hau da, ezagutzen ditudan emakumeen erdiek indarkeria matxista pairatu dute bere bizitzako momenturen batean; eta, gainera, ausartuko nintzateke esaten nahiz eta, gaur egun hitz egiteko beldur gutxiago eduki, horietako oso gutxi kontatu dutela pairatu izana.

EH Bilduko Durangoko Udaleko ordezkari naizen aldetik, politika feministak aurrera eramango direla bermatuko dut; ahal den heinean sistema patriarkalari oztopoak jarri eta errotik desagertu arte.

Iraultza feminista izango da edo ez da izango.

Durangaldea asteen

Elorrioko Institutuaren 25. promozioa ospatzeko mahai-ingurua azaroaren 23an

ELORRIO Elorrioko Institutuaren 25. urteurrena ospatzeko, mahai-ingurua antolatu du azaroaren 23rako Iturri Kultur Etxean. Mahai-inguruko parte hartzaileak Julen Zabala, Josu Etxaburu, Agurtzane Berriozabal eta Marijo Alvarez izango dira. 19:00etan hasiko da.

Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua eta gaztainerrea Mallabian, zapatuan

MALLABIA Santa Zezilia musikarien eguna ospatzeko, Mallabian egitaraua antolatu dute azaroaren 19rako. 19:00etan Mendibil abesbatzak, Adolfo Jainagak eta Mallabiko trikitilariak kontzertua emango dute Mallabiko Andra Mari elizan. Kontzertuaren ondoren gaztainerrea egingo dute.

Gaztainerre eguna ospatuko dute gaur, azaroak 18, Apatamonasterioko plazan

ATXONDO Gaur, azaroak 18, gaztainerrea egingo dute Apatamonasterioko plazan. 18:30etik aurrera banatuko dituzte gaztainak. Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak eta Atxondoko Udalak antolatu dute ekimena, eta herritar guztientzat izango da.

Iritzia

Urtarrilaren 7an ere bertan izango gara!

Urriaren 8an, Donostian, milaka eta milaka herritar batu ginen Izan Bidea dinamikaren baitako azken kilometroak osatu eta eginiko bideak ekarritako lorpenen balioa azpimarratzeko. Durangotik ere, dozenaka lagun joan ginen lehenik Donostiako kaleak koloreztatzea eta ondoren Ilunbeto jaialdira.

Orain, erronka berri baten aurrean gaude! Urriaren 8an bildutako indarrak hartu eta urtarrilaren 7ra begira jarriak gara. Izan ere, urte garrantzitsu baten hasieran kokatzen da aurtengo urtarrileko mobilizazioa; euskal presoen gehiengo zabala Euskal Herrian delarik amaituko dugu urtea. Egoera berri honek poza sorrarazten digu eta baita herri aktibazioaren eta kale aldarrikapenaren garrantzia eta balioa erakutsi ere. Horregatik, eta oraindik bidea egiteke geratzen zaigulako, urtarrilaren 7an Bilbon izatera gonbidatu nahi ditugu Durangoko herritar guztiak.

Bi urteren ostean, aurtun berri ere Bilbon elkartuko gara guztiok, oraindik ere bidea baitugu egiteke. Euskal herritarrek urrats garrantzitsua izan arren, euskal presoek oraindik ere etxeratze prozesua gauzatzeko traba eta oztopo ugari jasaten dituzte salbuespen legediaren ondorioz. Horren adibide dira gradu progresioen aurrean fiskaltza eta Audientzia Nazionala izaten ari diren jarrera atzerakoia. Hori hala, lanean jarraitzeko beharra ezinbestekoa dela uste dugu, euskal presoek ere dagokien etxeratze prozesua normaltasunez gauzatzeko unea baita.

Erronka berri honi guztiok batera ekin nahi diogu eta Durangon ere horretarako lanean jarraituko dugu datozen aste eta hileetan. Gutun honen bitartez, durangar guztioi gurekin bat egin eta herrian antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia egin nahi dizuegu, eta, nola ez, urtarrilaren 7an Bilboko kaleak betetzeko gonbita luzatu.

Aitziber Areitio (Durangoko Sareko kidea).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o **BAR GLORIA** Nerea Ruizabal (Susar)

2^o **BERRIZ ZENTAURU** Katia Agiere (Elkar)

3^o **M, AMA, EME, UME** Erika Lagoma / Estika Fernandez (Elkar)

4^o **MIÑAN** Amets Arraiz & Iñaki Balde (Susar)

5^o **IRAIERTZEKO IPUINA** Oihane Amantegi (Elkar)

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIARI



AZAROAK 25



Tratu txarren biktima diren
emakumeentzako arreta
soziala, psikologikoa eta
zerbitzu juridikoa,

946 200 492



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea



“Niretzat euskaraz abestea behar bat zen, eta aske sentitu nintzenean lortu nuen”

La Basuk tailer bat emango du azaroaren 24an, eta kontzertua Berrizko Kultur Etxean azaroaren 26an



MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elena Caballero ‘La Basu’ musika-riak musika du ogibide. Plazak rap doinuez betetzeaz gainera, hainbat proiektu du esku artean, eta euretariko bat tailerrak ematea da. Azaroaren 24an, esaterako, ‘Oholtzan gazteak ahalduntzen’ tailerra emango du Berrizko Kultur Etxean.

‘Oholtzan gazteak ahalduntzen’ tailerra emango duzu Berrizen. Zertan datza tailerra?

Urte asko daramat tailerrak ematen, eta normalean egiten ditugunak Hip hop-aren estereotipoak suntsitzekoak izaten dira. Normalean gazteek ez dute rapa euskaraz entzuten, euskaraz egindako rapa ez da existitzen eurentzat, eta, gainera, entzuten dutena gizonezkoek egindako rapa izaten da normalean. Horrez gainera, askok eta askok ez dituzte rapa eta hip hopa bereizten, eta horretan aritzen gara. Saio hauetatik oso gauza interesgarriak ateratzen dira eta asko ikasten dugu denok, baita nik ere.

Nori zuzenduta dago tailerra?

Berrizkoa gazteentzako tailerra izango da, tailer mistoa. Niretzat garrantzitsua izaten da saio mistoak egitea. Horrela, gura duten guztiek dute bertaratze aukera gurekin parte hartzeko. Gainera, raparen munduan emakume izateak zer suposatzen duen jakiten dute gizonak.

Urteak pasatu ziren, eta aske sentitu nintzen momentuan euskaraz abesteko apustua egin nuen

Horrelako saioak emateko, beharri- zan bat dagoela iruditzen zaizu?

Bai, jakina. Gauzak aldatzeko daude oraindik. Gainera, gaur egun orokorrean oso azkar bizi gara, ez dugu pentsatzeko astirik hartzen eta dena automatikoki egiten dugu. Eta saio hauek auke-

ra ematen dute beste ikuspuntu batzuk eta beste esperientzia batzuk entzuteko. Gero, bakoitza aske izan behar da nahi duena egiteko.

Zure hastapenetara joanda, sentitu duzu inoiz oholtzan ahalduntzeko beharrian hori?

Gazteagoa nintzenean, rapa egin nahi nuen, eta gizonekin egiten nuen, ez baizegoen emakumerik. Hori normala zen niretzat. Euren moduan abesten nuen, euren moduan janzten nintzen eta gustura nenbilen. Baina gero, adinarekin, konturatu naiz nik sasoi horretan beharrian bat nuela, aske izateko premia, eta ez nintzela aske. Aske izatea nire bizitzako borroketariko bat bihurtu zen.

Hizkuntzaren aldetik ere hautu bat egin duzu. Hasieran gaztelaniaz abesten zenuen eta nagusitzen joan ahala euskararen aldeko apustua egin zenuen. Hori ere ahalduntzeko modu bat izan zen?

Gaztea nintzenean abesti bat euskaraz egin nuen, eta hori ezin

zela egin esan zidaten. Kanpotik datorren musika hori nola egin daiteke euskaraz? Diskurtsoa erosi nien. Sasoi horretan oso gazteak ginen, eta inork ere ez zuen rapa euskaraz egiten. Nire herrian ez da ia euskaraz hitz egiten, nire etxean ere ez. Orduan, erdaraz abestea erabaki nuen. Baina urteak pasatu ziren, eta aske sentitu nintzen momentuan euskaraz abesteko apustua egin nuen. Neure buruari esan nion orain da momentua, euskaraz abestu gura dut eta euskaraz egingo dut. Erreferente berriak sortu behar ziren eta horri ekin nion. “Zergatik euskaraz”, galde-tzen zidan jendeak. Eta zergatik ez? Euskaraz abestea nire aukera izan zen, eta asko kostatu zitzaidan arren erronka handi bat izan da niretzat. Azken batean, lotsa eta beldurra kendu eta gure hizkuntza ikasi nuen, eta euskaraz abesten hasi nintzen. Euskaraz abestearen estereotipo hori apur-

tu egin behar zen, apurtu nuen eta orain neska gehiago dabil euskaraz rapeatzen.

Baina hau guzti hau adinarekin lortu dut, gaztetan dena zailagoa da, ez baitakizu mundu honek nola funtzionatzen duen. Niretzat euskaraz abestea beharrian bat zen, eta oholtzan aske sentitu nintzenean lortu nuen.

“Euskaraz abestearen estereotipoa apurtu egin behar zen, apurtu nuen eta orain neska gehiago dabil euskaraz”

Amaitzeko, gazteek zergaitik parte hartu beharko lukete tailerrean?

Ikasteko eta ikuspuntu ezberdinak ikusteko aukera paregabea delako. Gainera, horrela, gure mundutxo hau ezagutzeko oso aukera ona izango dutelako.

Eta, bestalde, azaroaren 26an Berrizko Kultur Etxean JMartina eta biok emango dugun kontzertura bertaratze deia ere egiten diet herritarrei. Gozatze-ko, dantzatzeko eta aske izateko gune proposa izango da.

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 11
Antzerkia: Luze edo motz bakarriketa (euskaraz)
Egileak eta aktoreak: Mirari Martiarena eta Idola Torregara
20:00etan Kultur etxean
6€ (bakzideak 4€)

AZAROAK 17
Solasaldia: “Emakume musulmanak eta Indarkeria Matxista”.
BIDAYA elkartearekin (gaztelaniaz)
Formatzailea: Hajar
Berrizko Kultur Etxe Zaharrean. 16:30 - 18:30
Doan - (Haurtzaindegi zerbitzua egongo da)

AZAROAK 20
Esku Pilota partida: Emakumezkoen master cup txapelketa (final laurdenak)
Berrizko, Olakueta Frontoian
11:00etatik aurrera
Doan

AZAROAK 24
Tailerra: Oholtzan gazteak ahalduntzen (euskaraz)
Formatzailea: LA BASU
Berrizko Kultur etxean. 18:00 - 19:00
Doan
Izena emateko azken eguna azaroak 22 da
berdintasuna@berriz.eus / 946 824 525

AZAROAK 25
12:00etan: Elkarretaratze Instituzionala Udaletxean
Egunean zehar: Learreta-Markina, Lehen Hezkuntzako ikastetxean eta Berrizko Institutuan Emakume, ume, neskat, neska eta emakume transen aurkako indarkeria matxista salatze ekimenak burutuko dira.
19:00etan: A25 MANIFESTAZIOA! Udaletxetik Olakueta Plazara.
Antolatzaileak: Azeri Gorriak, Emakume Migratuak eta Gure Izarrak.
HERRITAR ORORI DEI EGITEN DIOGU ELKARTERATZEAN ETA MANIFESTAZIOAN PARTE HAR DEZAN!

AZAROAK 26
Kontzertua: La Basu eta J Martina
19:00etan Berrizko Kultur Etxean
6€ (bakzideak 4€)

ABENDUAK 3-10
Tailerrak: Autodefentsa feminista (euskaraz), 10-13 urteko neskatontzako
Formatzailea: Esther López, Safo eskola
Berrizko Kultur etxean. 16:00 - 20:30
Doan
Izena emateko azken eguna abenduak 1 da
berdintasuna@berriz.eus / 946 824 525

“Zaintza gizarte osoak hartu beharko luke bere gain. Emakumeak zaintzaile diren eredua oso injustua da”

Esther Alonso Mankomunitateko teknikariak 'Generoa eta zaintza' berbaldia emango du Zaldibarren, azaroaren 24an, liburutegi zaharrean

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Emakumeak dira zaintza lanak egiten dituztenak. Mendekotasuna duten pertsonen kasuan, zaintzaileen profila oso zehatza da eta urteen joan-etorriagaz ez da aldatu. Gai honen inguruan, Esther Alonso Mankomunitateko Zaindu programaren arduradunak 'Generoa eta zaintza' berbaldia emango du azaroaren 24an, Zaldibarko liburutegi zaharrean. “Urteak daramatzagu zerbitzu hau eskaintzen eta profila ez da aldatzen. Egoera hau azaleratzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Bestalde, zaintza lanak modu positibo batean baloratu gura ditugu”, azaldu du Alonsok. Ildo horretatik, zaintza lanak beharrezkoak dira gizartean, baina ezin da izan emakumeen gain dagoen ardura. Hausnarketa hori sustatzen ahaleginduko dira Zaldibarko solasaldian. Korrespontsabilitatea zaintzan, horixe da Mankomunitateko teknikariak azpimarratzen duena: “Zaintza gizarte osoak hartu beharko luke



Esther Alonso berbaldi batean.

bere gain. Emakumeak zaintzaile diren eredua oso injustua da”.

Zaindu programa mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzenduta dago. “Denboraren erabilerari buruz ere berba egiten dugu.

Oso garbi ikusten dugu oraindino gauzak ez direla asko aldatu. Etxe-ko lanei buruz ere bai, zaintza lane-kin oso lotuta daude eta”, gaineratu du. Pertsona bat zaintzea beragaz egotea baino askoz gehiago da. Bere

ardura norberaren gain hartzea da, baita alde psikologikotik ere. Ildo horretatik, farmaziara joatea, medikuaren txandak antolatzea, gizarte zerbitzuekin hartu-emane-tan egotea... hori ere zaintza da.

“Denboraren erabileraren inguruko estatistikek jasotzen dute zuzenean zenbat denbora gauden pertsona horregaz, baina zenbat denbora ematen dugu buruan ardura horregaz?”, gehitu du Alonsok.

Horrez gainera, Zaindu programa senide zaintzaileei zuzenduta dago. Hala ere, badago sentsibilizazio kanpaina bat zaintzaileen profila aldatzeko. Ikasleei kontatzen dieten istorio baten bitartez zaintzaren gaia lantzen dute genero ikuspuntutik. Formakuntzari dagokionez, zaintzaileei begira norbere burua zaintzeko tailerrak ematen dituzte batez ere. Sareak sortzen dituzte eta kasu horietan, besteak beste, emozioei eta autoestimuari buruz berba egiten dute. “Talde hauetan senide zaintzaileek aukera dute euren egoera kontatzeko, eta euren artean hartu-emanak sortzen dituzte. Euren egoera beste zaintzaile batzuei kontatzean ulertuak sentitzen dira eta emozio horiek lantzen ditugu”, dio teknikariak.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA



A 25



“Ez nazazu hainbeste maite, maita nazazu hobeto” tailerra, indarkeriaren aurpegi guztien ingurukoa.

**AZAROAK 14
LIBURUTEGI ZAHARRA
17:30-19:30
HIZKUNTZA: ELEBIDUNA**



“Generoa eta zaintza” hitzaldia

**AZAROAK 24
LIBURUTEGI ZAHARRA
17:30-19:30
HIZKUNTZA: GAZTELERAZ**



ZALDIBARKO UDALAK BAT EGITEN DU MUGIMENDU FEMINISTAK ETA EMAKUMEEN ELKARTEEK ANTOLATUTAKO EKITALDIEKIN

IZENA EMATEKO: berdintasuna@zaldibar.eus / 946 827 016

ADINGABEENTZAKO ZAINZA ZERBITZUA EGONGO DA, EKINTZA EGIN BAINO 3 EGUN LEHENAGO ESKATUZ GERO.

Zapatublaiko lokaletan : 17:00-20:00.

**IURRETA • JONE GUENETXEA**

Skolastikako Josune Muñozek berbaldia eman du asteen lurretako Ibarretxe kultur etxean. Me Too mugimenduak literaturan izan duen eraginaren inguruan aritu ziren eguaztenean. Bortxaketaren kultura hizpide hartuta, hainbat adibide ipini zuen. Gura duenak gaiari buruzko bibliografia osoa aurkituko du Ibarretxe kultur etxean.

Me Too mugimendua zer den azaltzea komeniko litzateke, literaturan izan duen eragina aztertzeke.

Me Too mugimenduaren haria noiztik eta nondik datorren landu gura dugu berbaldian, gaur egungo panoramara hau guztia bortxaketaren kulturaren barruan. Bortxaketaren kultura aurreko olatu feministan azaleratzen eta salatzen hasi zen. Me Too-k zelanbait nabarmendu zuen indarkeriarik inportanteena sexuala dela. Ikusarazi izan du mundu osoko fenomeno dela, gizarte maila guztietan gertatzen dela eta oso goiz eta gordin hasten dela, umeekin hain zuzen ere. Hortik abiatuta, euskal literatura ere landuko dugu.

Bortxaketaren kultura ahozko literaturan hasi zen, eta hortik idatzizkora pasatu da

Bide luze baten errepasoa planteatzen duzu. Hari hori zelan islatu da literaturan?

Ahozko literaturatik hasiko gara. Ipuinen bitartez kontaturiko istorioak aztertuko ditugu. Txanogorritxurena, Romaneces de Bernardinarena eta horrelakoak. Bortxaketaren kultura ahozko literaturatik hasi zen eta hortik idatzizkora pasatu da. Batez ere autobiografiatar. Arlo horretan, emakume afroamerikarrek izan dute garrantzia batez ere, esklabotza sisteman emakumeen kontrako bortxaketa sistematikoa salatuz.

Me Too mugimenduagaz aurpegi ezagunek bat egin dute euren testigantzak kontatuta. Mugimendu horrek zein eragin izan du literaturan?

Me Too-k autobiografia modu berezi bat sortu du, bortxaketaren kultura kontatzen da batez ere. Kontatzen da kultura hori haurtzaroen hasten dela eta garrantzi handiko mugimendua dela. Emakume afroamerikar batek asmatu zuen terminoa, Tarana Burke izenekoa. Zorionez, hirugarren olatu feministatik laugarren olatu feministara doan tarte horretan bortxaketaren

“Bortxaketaren kulturaren oinarritzko ezaugarria da biktimak kulpabilizatu egiten direla”

Azaroaren 25eko egitarauaren barruan, Me Too mugimenduak literaturan izan duen eragina aztertuko dute Ibarretxe kultur etxean



HIRUKA

kulturak oihartzun handia izan du gure gizartean. Mugimendu feministak sentsibiltate handiko guneak sortu ditu. Berbaldian Haur Besoetakoa liburuagaz hasi ginen eta Manada auzia ere aztertu genuen.

Alde horretatik, 'sinesten dizut' esaldia ere erabili da. Biktima berbiktimizatzen duen kulturaren kontra egiteko modu bat izan da?

Bortxaketaren kultura zer den definitzerakoan, oinarritzko ezaugarria da biktimak kulpabilizatu egiten direla. Biktimak errudun legez agertzen dira. Kostatu egin da hau lantzea eta horren kontrako tresnak plazaratzea.

Manada auzia mugarri bat izan zen gai honetan. Zergaitik?

Zergaitik izan zuen kasu honek eragina gizartean eztabaida bat sortzeko, eta ez beste batek? Badaude oso aztertuta dauden ezaugarri batzuk. Batez ere bisibilizatu gura duguna da mugimendu feministaren etenbako lana bortxaketaren kulturaren kontra. Ekaitz perfektua gertatu zen: jendearen nekea, mugimendu feministaren etenbako salaketa, aurreko kasuen inguruko haserre, mundu osoan martxan zegoen Me Too-ren eragina... hainbat ezaugarri metatu zen eztabaida sortzeko.

Gai hau landu gura duenarentzat bibliografia prestatu duzue.

Bai, lurretako bibliotekan bibliografia bat utzi dugu gai hau landu gura dutenentzat.

Euskal literatura ere landuko duzuela esan duzu eta Haur besoetakoa liburua aipatu duzu.

Bai, eta euskal literaturaren kasuan, Haur besoetakoa Lolita baino grabeagoa dela esango nuke. Vladimir Nabocovek sorturiko Lolita-k 12-13 urte zeuzkan. Haur besoetakoan 11 baino ez. Bereiztu behar dira kontu literarioak eta kontu feministak eta gizarte arloa. Liburu moduan oso ona da, baina zein irakurketa izan behar du? Programatzeari utzi behar diogu? Ez. Izan ere, sortu den eztabaida da ea material hori zentsuratu egin behar den, eta zirkulaziotik kendu. Ni ez naiz sekula horren alde egon. Oso liburu aprobetxagarria da abusu sexuala zer den ulertzeko. Liburuan oso ondo ikusten da prozesu osoa: zer den tratatu txarren harremana, zer den indarkeria sexuala, indarkeria psikologikoa... Oso ondo azaltzen du botere sexualaren prozesu osoa. Liburu hau urteetan publikatu barik egon zen, oso testu delikatu delako. Berrargitaratu zenean, Gabriel Arestik esan zuen amodiozko istorio bat zela. Horrela programatzen zen. Baina ez da amodioari buruzkoa, inondik inora. Istorio pedofilo ikaragarria da. Terriblea da hor kontatzen dena.

Iurreta 2022

Azaroak 25

EMAKUMEENGANAKO Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna

Goizean: **PEGATINAK ETA PUNTU MOREEN BANAKETA**
Ibarretxe Kultur Etxea - Herritarren Arreta Zerbitzua (Haz)

Juan Orobiogoitia Institutua - Iurreta Lanbide Heziketa
11:15: Ikastetxeetatik herrigunera **MANIFESTAZIOA**

ASKONDON
18:00: **BEELDUR BARIK 2022 TOKIKO LEHIAKETA**
Bideoen proiektzioa eta sari banaketa
18:30: **ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA**
Herriko elkarteen eta norbanakoen parte hartzearekin batera

Ondoren: MANIFESTAZIOA ASKONDO - BIXENTE KAPANAGA - MASPE - BIDEBARRIETA - BIXENTE KAPANAGA - ASKONDO
Bitartean: OMENALDIA "LORRATZ LAPURTUAK"
Indarkeriaz hildako emakumeak. Irakurketak

Ibarretxe Kultur Etxean
19:00: **HELDUEN IPUIN KONTALARIA**
ALEJANDRA VENTURINI (Argentina) "Antes de Eva"

ABENDUAK 6
10:00 Goiuria Kultur Gunean **JABEKUNTZA IKASTAROA** **AHALDUNTZEA (3 ordu)**

ARGIBIDE GEHIAGO: MÁS INFORMACIÓN:
Ibarretxe Kultur etxea, Haz - Sac-en, e-mailaz: gizarte-ongizate@iurreta.eus; do Telf. 94 621 53 72

Iurreta Elizateko Udala

HERRIKO ELKARTEAK ASOCIACIONES LOCALES

Ingurumenaren degradazioak emakume errefuxiatuengan duen eraginaz hausnartzeko gonbita egingo dute Elorrion

'Emakumeak krisi klimatikoaren aurrean: begirada Palestinan' berbaldia antolatu dute Iturri kultur etxean

ELORRIO • AITZIBER BASAURI
Azaroaren 25aren harira antolatutako ekitaldien artean, ingurumenaren degradazioaren ondorioz izandako lekualdatze behartuak hartuko dituzte Elorrion berba, azaroaren 22an. ZEHAR-Errefuxiatuak erakundeak, fokua emakumeengan ipinita, gogoeta egingo du larrialdi klimatikoaren eta milaka pertsonaren desplazamendu behartuen artean dagoen loturaz, eta horren ondorioz munduan izandako giza eskubideen urraketa. UNRWA-Euskadik ere parte hartuko du 'Emakumeak krisi klimatikoaren aurrean: Begirada Palestina' izenburupean antolatutako berbal-dian. Palestinako lurralde okupatu-tuetan bizi diren emakumeengan emergentzia klimatikoak duen eragina hartuko dute berba, beti ere okupazioari lotuta. Iturri kultur etxean izango da, 18:00etan.

UNRWA-Euskadiko Macarena Arrietak azaldu duenez, Zisjordanian eta Gazan bizi diren emakumeen testigantzak oinarri hartuta

jardungo dute. "Emakume palestinar errefuxiatuen zenbait istorio azalduko dugu (nekazaritzan, inge-nieritzan, energia berriztagarrietan dabilzanenak...). Askotariko emakumeen profilak dira, bai aldaketa klimatikoa bai okupazioa zelan sufritzen duten erakusten du-tenak, lehen eskutik kontaturiko istorioak", esan du Arrietak. Bere esanetan, aldaketa klimatikoak eta okupazioak zenbait testuinguru-tan duten eragina erakustea dute helburu. "Ez da berdina Gazako emakume nekazari baten bizi istorioa, edo Zisjordaniako batena. Kontestu desberdinak dira", dio.

Bestalde, emakume palestinar horiek bizi duten egoerari aurre egiteko dituzten estrategiak ere erakutsi gura dituzte. "Existitzen diren estrategia horiek ezaguta-raztea ere badugu helburu. Izan ere, oso garrantzitsua da andre hauek subjektu aktibo lez ikustea, eta ez biktima edo subjektu pasi-bo lez", azpimarratu du Arrietak. Ildo horretan, gaineratu duenez,



Olibondoak garrantzi handia du Palestinan, landare oso sinbolikoa da palestinarrentzat. UNRWA

"emakume palestinarrez ari ga-renean, askotan pasibotasuna, biktimizazioa eta halako berbak entzuten dira. Beloa ere aipatzen da askotan, eta horri lotuta atzean dagoen hainbat gauza. Arabiar eta

musulman kontzeptuekin naha-s-men eta txarto ulertu asko dago. Badago dena homogeneizatzeko joera bat". Errefuxiatuei buruzko hainbat estereotipo dago hor, eta horietaz gogoeta egiteko tartea ere

hartuko dute Elorrion. Era berean, errealtate birtualeko betaurrekoe-kin, Gazan egun bat zelakoa den ezagutzeko aukera izango dute ber-taratutakoek, 11 urteko neskatila baten ikuspuntutik.

Azaroak 22, asteartea,
18:00, Iturri Kultur Etxea

HITZALDIA ETA BIDAIA BIRTUALA:
'EMAKUMEAK KRISI
KLIMATIKOAREN AURREAN:
PALESTINARA BEGIRA'

Aldaketa klimatikoak errefuxiatu palestinarren bizitzetan duen eragina ezagutuko dugu. Eta errealtate birtualeko betaurrekoei ikusiko dugu nolakoa den, neska errefuxiatu baten eskutik.

UNRWA Euskadi-Zehar Euskadi

Azaroak 25, ostirala,
18:00, herriko plaza

MOBILIZAZIOA

'ELORRIO INDARKERIA MATXISTARI EZ'

Elorriko Asanbada Feminista

Azaroak 26, larunbata,
18:00, Arriola Antzokia

ANTZEZLANA:
'BI MUNDUREN ARTEAN'

'Las de Afuera' emakume migratu eta etxeko langileen antzerki taldeak aurreiritziz eta estereotipo xenofobo eta matxistaz jositako lan-sistema eta gizarte-irajinarria eramango du taulara.

Azaroak 26, 27 eta 28,
20:00, Arriola Antzokia

PELIKULA:
'CERDITA'

Landa giroko thriller bat da, non neska gazte batek sexuari oinarritutako jazarpena eta iudofobia jasaten dituen.

Egitarraren
zehetasunak:

ELORRIKO IKASTETXEETAN
ANTOLATUKO EKINTZAK

HERRI ESKOLA

Eskolako partaideek genero indarkeria salbesterako prebentzioa lantzen dugu helburu. Azaroan zehar, gure ikasle bakoitzak komunitate inguruko da. Heziketa eskolako gurean kultural pertsona baten sarrera jarri eta mezuz jantzi dugu: gogoa eskolara sartze orduan, eskul kantekin genero indarkeriaren kontrako kantak jarriko ditugu. Azaroaren 25ean, eskola giroa monekin apenduko dugu eta ikasleek eta irakasleek puntu monei sarrera jarriko dugu.

INSTITUTUA

Aurkeko tutezta saioetan giza tratamendu dugu eta egunean bertan, bideo bat ikusi eta hausnartzeko denbora eman ondoren, egindako pultsari jantzi dugu. Atsedenean odoari, ikasle eta irakasle guztiak argutia emango dugu, eta ikasle monei itango da nagusi. Beldur Bar-en parte hartzen dugu. Berdin Gure bakoitzak egindako lanekin apenduko dugu.

LOURDESKO AMA IKASTETXEA

Azaroan, indarkeria matxista prebentzeko Lehen Hezikuntzan haren oinarriak sortzeko enstregiak lantuko ditugu, eta gustatzen ez zatekeen jantzi inguruko sentsibilizazioa ere bai. DBH, aldiz, ikasleak, emakumeak jantzi dugu indarkeriaren inguruko hausnarketa bultzatuko dugu. Lanitako hezikuntza komunitatera zabalduko dugu.

MARIA BITARTEKOA IKASTETXEA

Sentsibilizazio-saioak ziklotariko materialak eta eskola apantika itango ditugu. Antzerki eta haren bati sare sozialekin zabalduko dira.

TXINTXIRRI IKASTOLA

Azaroaren 25aren larunketa, komunitate osoarekin egingo dugu. Familia, langile eta ikasle hainbat alderdi lantuko ditugu: tratu orria, indarkeria diskriminazioa, haren menariko adostasun behar, merpektatuari zola eta indarkeriaren eskalera haren menar.

IKUSEZINA
DENA
IKUSARAZI

Generoa, diskriminazioa, genero-estereotipoak indartzea, lantokietako esplotazioaren normalizazioa, beldura eragitea, sexualizazioaren eta gorputzen kontrol soziala, giza emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa da.

Indarkeria sinbolikoa ikusezina, aspiko edo inplustua da. Azaroaren 25 honetan, "ikusezina dena ikusarazi" nahi dugu, eta, era berean, Elorri izan diren eraso guztiak batera, indarkeriaren normalizazioa eta emakumeak kontrolatzeko jantziak salatu nahi ditugu.

Gehiago jakiteko

Jaso zure bandera!

Indarkeria matxistaren aurkako bandera etxean jarri nahi baduzu, eskatu haren 18tik aurrera, udalarekin, Iturri Kultur Etxean edo Turismo Bulegoan.



“Gizarteko sektore batek errekonozitzen ez duen biolentzia mota dezente dago”

Matilda Noriegak emakume migratzaileek jasaten dituzten biolentzien eta horien atzeko arrazoen gaineko berbaldia emando du



DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Matilda Noriegak giza eskubideen defentsan dihardu gazte gaztetatik eta esperientzia asko pilatu du urte askoan. Guatemalakoa jaiotzez, Bilbon bizi da gaur egun eta hemengo elkarteekin kolaboratzen du. Azaroaren 22an, 18:30ean, 'Migrazioa eta aterpea, transitoan jarraitzen dugu' izeneko berbaldia emango du Andragunean.

Zertan datza hitzaldia?

Migratzeko beharrezko areago-tzen duten arrazoiak bistaratzea eta ezagutaraztea da hitzaldiaren helburua. Erakustea jatorrizko herrialdean zer biolentzia mota jasaten dituzten emakumeek eta ulertzea migratzeko erabakia aske hartzen den ala azpigaratutzat hartzen diren herrialde askotan dauden egitura politiko eta patriarkalek inposatua den.

Migratzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke.

Bai. Atzerriko esku-hartzea, estrak-

tibismoa, korrupzioa, gizartearen egiturak... eta horietatik erator-tzen diren biolentziak. Horrek guz-tiak mugatu egiten du emakumea subjektu aktibo izatea erabakiak hartzerakoan eta, eskubideei da-gokienez, zaurgarritasun egoeran ipintzen ditu.

“Helmugako isilpeko biolentzia ere jorratuko dugu, bazterkerian, desberdinkerian, arrazakerian... oinarritzen dena”

Jatorrizko herrialdeetako egoerara mugatuko zara hitzaldian?

Ez. Herrialde batetik besterako mugimenduari eta helmugari bu-ruz ere arituko gara. Helmugako isilpeko biolentzia ere jorratuko dugu; bazterkerian, desberdinke-rian, arrazakerian eta abusuetan oinarrituriko biolentzia, zeinetan sistema kapitalistan ezarrita da-goan. Inklusio ez inklusiboa da, azken finean. Sinestarazten digute entzuten dutela, aintzat hartzen dituztela guk esandakoak eta kasu egiten digutela, baina ez da horrela. Horren gainean hausnartuko dut hitzaldian zehar, eta azkenean ari-

Aldarrikapenei antzerkiak eta berbaldiak batu dizkiete Mallabian

Domekan Me Too antzezlanaren taularatuko dute frontoian. 12:15ean izango da. Datorren astean, indarkeria matxista definitzeko berbaldiak eta kontzentrazioa egingo dituzte



Indarkeria matxistari aurre egiteko elkarretaratze bat, Mallabian.

MALLABIA • E.H.

Mallabian hiru ardatzen bueltan antolatu dute Azaroaren 25a: ekitaldi kulturalekin, hausnarketarako ekintzekin eta mobilizazioekin. Domeka honetan, adibidez, Me Too izeneko antzezlanaren taularatuko dute frontoian. Emanaldia 12:15ean hasiko da. Egitarauak egunean izango du segida, gogoe-tarako tarte bat eskainita. Hilaren 24an, Kontzejuzarrean berbalia egongo da indarkeria matxista zer den definitzeko. 19:00etan izango da. Egitarauko egitasmorik esanguratsuena azaroaren 25ean bertan egingo dute. Mallabitarrek kalera irtengo dute Berdintasun Kontseiluak deituta. 12:00etan adierazpen instituzionala irakurri-ko dute frontoiko aldapan. Behin hori eginda, eskolako umeen me-zuak irakurri eta indarkeriaren kontrako abestia kantatuko dute. Azaroaren 27a izango da aldarrika-penekin bat egiteko egitarauko az-ken eguna. 'Indarkeriaren aurpegi guztiak' berbaldia egongo da Kon-tzejuzarrean, 12:15ean, Nahikari emakume elkarteak antolatuta.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

Azaroak 6 eta 13

II. Film laburren eta kontakizunen jaialdia
Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 12:15-14:00
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 16, 17 eta 18

Hezikidetzak: eskolako umeentzat
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 20, igandea

Antzerkia
Antzezlanak: Me Too
Tokia: Herriko frontoia
Ordua: 12:15 / Hizkuntza: Euskara
Gazte eta helduentzat
Antolatzailea: Udala

Azaroak 24, osteguna

Hitzaldia: Zer da indarkeria matxista?
Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 19:00 / Hizkuntza: Euskara
Antolatzailea: Udala

Azaroak 25, ostirala

Kontzentrazioa 12:00etan frontoiko aldapan
• Adierazpen instituzionalaren irakurketa
• Eskolako umeen leloak eta amaitzeko
"Indarkeriaren kontrako abestia" abestuko da
Antolatzailea: Berdintasun Kontseilua

Azaroak 27, igandea

Hitzaldia: Indarkeriaren aurpegi guztiak
Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 12:15
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte



MALLABIKO UDALA

keta bat egingo dugu bertaratzen garenon artean.

Zelako ariketa?

Galdetuko diogu geure buruari zelan jokatu genukeen migratzera behartuta egongo bagina. Zeri egin beharko geniokeen aurre. Hausnarketa horregaz, bestearen tokian ipinita ezagutu genezake zelan jokatu behar dugun migratzaileekin. Azken batean, Euskadi ere herri migratzailea izan da iraganean, bere herrialdetik irtetera behartuta egon dira lagun asko. Memoria eginda, gertatu dena aztertuta eta kontzientzia bat hartuta, herrialde lez migratzaileen egoera kudeatzeko estrategia ho-beak irten daitezke.

Zure ustez, zertan hobetu daiteke?

Lehenengo eta behin, kontzientzia oro etxetik harturikoa da. Baina etxeak mundu zabalean gertatzen denetik aldenduta badaude, burbuila desberdinetan egongo balira lez, ez da egoerekiko pentsamendu kritikorik garatuko eta gizartea ez da euretan murgilduko. Eta gizartea arazoetan ez murgiltzearen faktore nagusienetakoa kapitalismoa da. Kapitalismoak kontsumismoa eta materialismoa baino ez ditu sustatzen, eta errutina horretan sartuta gaude. Esklabismo mota bat da, kartzela moduko bat, eta ez digu munduko beste toki ba-

tzuetan zer gertatzen den ikusten uzten. Ez dugu pentsatzen erositako produktu asko nondik datozen eta zer baldintzatan dauden herrialde hartako pertsonak. Eta guk ez badugu pentsatzen, nekez pentsatuko dute gure seme-alabek. Begiak zabaltzen ikasi behar dugu, eta hezkuntzan eragiten.

Kapitalismoak kontsumismoa eta materialismoa baino ez ditu sustatzen, eta errutina horretan sartuta gaude

Migrazioetan jasaten den biolentzian badago alderik jatorri batekoa ala bestekoa izan?

Begiratu diezaiozun Ukrainako gerran gertatzen ari denari. Zer irtenbide ematen zaien hango migratzaileei eta beste toki batekoei. Gerra bat sekula ezin daiteke justifikatu, baina zergaitik aktibatu dira arau batzuk hango migratzaileentzat eta beste batzuentzat ez? Europarrak eta zuriak direlako. Siriarentzat ez ziren aktibatu, esaterako; ezta Afrikako eta Hegoamerikako migrazioentzat ere. Baina, behintzat, mekanismo horiek aktibatu direnean, denok

konturatu gara gauzak gertatu daitezkeela horretarako borondatea badago.

Emakume migratzaileek jasaten dituzten biolentziak mota askotakoak izan daitezke.

Bai. Oso zaurgarriak diren eta etengabe gatazkan egon diren lurraldeetan biolentzia argiagoa eta begi bistakoagoa da. Baina Europako herrialde askotan, Espainian eta Euskadin barne, gizarteko sektore batek biolentzia modura errekonozitzen ez duen biolentzia mota dezente dago. Zeintzuk diren? Esplotazioa, nagusikeria, diskriminazioa, bazterkeria, gainerakoek ezer ez dakitela pentsatzea, pobre, exiliatu edo errefuxiatu lez estigmatizatzea... Ondorioz, biolentziak normalizatu egiten ditu eta ikusezinak dira: pentsatzea paperik ez duen hori gutxiago dela, emakume latinoak odolberokoak eta emagalduek direla... Horrela, biolentzia isil horiek abusu bihurtzen dira azkenean. Esaterako, zaintzan barruko langile modura lan egiten duten emakumeak bortxatu egin izan dituzte eta abusuak jasan dituzte kontratatu dituztenen partetik. Edo nekezaz eremuan izaten diren abusuak, non egun osoan lan egin osten ez dieten ordaintzen.

Beraz, oraindino asko dago egiteko.

Bai, eta erakundeetan horren inguruan egin beharreko hausnarketa beharrezkoa da. Migrazioak onartzen dira, herrialdeak diren neurrian lege batzuk kunplitzera behartuta daudelako, baina protokolo hutsa da. Gero, prozesu migratzailea gertatzen denean espazio hartzaileak ez dira existitzen, eta ezta aterpe bat eskatzeko prozedurak ere. Existituko balira, ez litzateke instituzioaren aldetik erregularizazioaren inguruan bizi dugun problematarik egongo lan bat bilatzerako orduan edo ikasketen homologazioan. Horrez gainera, beldurra ezartzen zaigu. Beldurra zirkunstantzia edo egoera berriekiko. Gai hauek guztiak hitzaldian jorratuko ditugu.

Migratzaileen egoerak gertutik ezagutu dituzu.

14 urte nituenetik giza eskubideen defendatzailea naiz eta Hegoamerikako eta Erdialdeko Amerikako egoera asko ezagutu izan dut bertatik bertara. Ekialde Ertainean nazioarteko boluntariotza egiteko aukera ere izan dut. Bestalde, gaur egun, Bilbon, ni bizi naizen esparru honetan, giza eskubideak kunplitu daitezten lan egiten dut. Giza eskubideak ez direlako negozio bat. Horregaitik, hainbat elkartegaz kolaboratzen nabil neure kon-

tura. Esaterako, Alboan Gobernu Kanpoko Erakundeko 'Mujeres en Marcha' egitasmoan kolaboratzen dut. Horrela, egoera asko gertutik ezagutzen dut, nigana etorri eta kontatu egiten dizkidatelako. Mota askotako egoerak ezagutu izan ditut. Ikus-entzunezkoen sortzailea naizen aldetik ere beste esperien-

Biolentziak normalizatu egiten dira, ikusezinak bihurtzen dira eta abusu bihurtzen dira azkenean

tzia batzuk ezagutu izan ditut.

Zure ikus-entzunezkoen artean, 'Bidea Gurutzatuz' zikloaren barruan hilaren 29an Durangon bertan aurkeztuko duzun 'Guatemala 1982' dago.

Bai, Kalifornian dagoen Guatemala Films ekoiztetxeko ordezkaria naiz eta haren bitartez egindako dokumentala da. Pertsona migratzaileek sorturiko ekoiztetxea da. Dokumentaleko zuzendaria Guatemalako militarrek bahitu eta torturaturiko pertsona bat da. Dokumentala eman ondoren, solasaldi bat egingo dugu denon artean. Emanaldia Durangoko Elkartegian izango da.

Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak
25

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba/álava
hau aldiak aldiak dira





Udalerrien arteko protokoloa giltzarri da indarkeriagazko perspektiba zabaltzeko

Durangaldeko emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko protokoloak 67 salaketa kudeatu zituen 2021ean



PROTOKOLOA • EKAITZ HERRERA

Hamar urte baino gehiago joan dira hainbat eragilek Durangaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko protokola sortu zutenetik. Zazpi eragilek parte hartu zuten haren osaketan. Eskualdeko lau udalek (Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio), Mankomunitateak, Osakidetzak eta Ertzaintzak. Helburua argia zen orduan, eta argia da gaur egun ere: elkarregaz koordinatuta, indarkeria matxistari loturiko kasuak prebenitu eta biktimei arreta eskaintzea, funtsean emakumeen eskubideak bermatzeko. 2011n hasitako lankidetzara hori fruituak ematen dabil, hainbat aurrerapauso eman dituzte-eta kasuei aurre egiterako orduan. Halantxik azaldu du Marrije Apodakak, Elorrioko berdintasun teknikariak: "Lehen, adibidez, Osakidetzako erizain batek edo Lehen Arretako mediku batek parte hartzen zuten protokoloaren osaketan. Gaur egun emagi-

nak eta buru osasunaz arduratzen diren medikuak ere baditugu. Ertzaintzagaz ere berdin. Lehen, ordezkari bakarra batzen zen. Gaur egun bi datoz, unitate bakoitzeko bat. Salto hori inportantea da, sektore bakoitzaren barruko lanetan sakondu daitekeelako", azaldu du Apodakak. EDE Fundazioko Zuriñe Romeok ere protokoloaren kudeaketan parte hartzen du. Asistentzia teknikoak eskaintzen die gune horretan parte hartzen duten arduradunei. Ildo beretik berba egin du: "Emakumeak Ertzaintzara joko du zuzenean salaketa ipintzera. Baina Osakidetzak, biztanleriaren zati handi batek lan egiten duenez, aukera gehiago eskaintzen du indarkeria kasuak detektatzeko. Lankidetzara honek eragile bakoitzaren sistemetan sakontzea ahalbidetzen du", dio.

Mundu mailako izurri bat eta indarkeria matxista etengabea. Protokoloa lantzen duten kideek hainbat joera antzeman dute azken urteotan. "Pandemian, adi-

bidez, ez zen hainbeste salaketa erregistratu. Ez zegoen jairik, espazio konpartiturik, baina arreta psikologikoak, laguntza telefonikoa eskatzeko deiek dezente egin zuten gora. Izan ere, indarkeria intrafamiliarrak gora egin zuen.

“Izurri garaian behera egin zuten salaketek, eta gora familia barruko indarkeriak. Orain, lehenagoko joerara bueltatu gara”
ZURIÑE ROMEO

Bestalde, izurritik honako joera da datuak, indarkeria kasuak, lehenagoko maila batera bueltatu direla", azaldu du Romeok. 2021ean indarkeria matxistari loturiko 67 salaketa erregistratu ziren protokoloaren parte diren udalerrietan. Alde horretatik, Apodakak indarrean dagoen protokoloa zaintzera eta erakundeen arteko koordinazioa mantentzera deitu du. "Inportantea da udalerri gaingandiko protokolo hau bermatzea, horri eskerrak begirada zabaltzen delako. Begirada zabaltu behar dugu, horregaz edozein motatako indarkeria kasuak detektatzeko", esan du Apodakak.



Ipuin kontalariak, eskulanak, film emanaldiak eta clown ikuskizunak egongo dira Zornotzan, Azaroak 25eko egitarauaren

Bihar goizean, Maite Francok 'Bizarrurdinak' izeneko ipuin kontalari saioa egingo du, Zelaieta Zentroko liburutegian

ZORNOTZA • J.D.

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dute Zornotzan. Eurretari batzuk aste honetan zehar izan dira, baina oraindino badago zertaz gozatu hurrengo egunetan.

Bihar, 12:00etan, *Bizarrurdinak* izeneko ipuin kontalari saioa egingo du Maite Francok Zelaieta Zentroko udal liburutegian. "Ipuinak jakinduriz beteriko zakuak dira. *Bizarrurdin* horren adibide argia da; izan ere, aspaldiko ipuin honek urteetan azaldu die neskatoei genero bortizkeria zertan datzan", dio ipuinaren sinopsiak.

Clown ikuskizuna

Azaroaren 25a udaletxeko plazan egingo duten elkarretaratzeagaz hasiko dute. Arratsaldean, Virginia Imazek *Pronoia* izeneko clown ikuskizuna egingo du. Pauxa pailazoaren azalean sartuko da Imaz. Pauxa genero indarkeriari buruzko hausnarketa egiten duen pailazoa

da. Orokorrean, giza harremanei buruz dituen kezkek partekatzen ditu, baikorra dela adieraziz aldi berean. Izan ere, pronoia da Pauxa; hau da, paranoikoei uste duten kontrara, unibertsoa eta mundu guztia bere alde konspiratzen dabilela uste du Pauxak.

'Hive' filmaren emanaldia

Azaroaren 29an, iluntzean, gerra osteko Kosovon kokaturiko *Hive* filma emango dute Zornotza Aretoa. Senarra gerran desagertuta eta familia estuasun ekonomikoetan dagoela, filmeko protagonista den Fahrije-k baserri negozio bati ekingo dio, baina bizi den herrixka patriarkal eta tradizionalak ez ditu begi onez ikusiko bere ahalegin eta anbizioak.

Kirolarien mahai-ingurua

Azaroaren 30ean, Zornotzako emakume kirolariak izango dira protagonista. Iaz, Maria Mentxaka argazkilariaren hainbat argazki Zornotzako Emakume



Virginia Imaz 'Pronoia' ikuskizuneko une batean. OIHULARI KLOWN

'Hive' filmak gerraosteko Kosovon emakume batek aurrera egiteko dituen zailtasunak kontatzen ditu

Azaroaren 30ean mahai-inguru batean batuko dituzte Zornotzako emakume kirolariak

Kirolariak izeneko erakusketan batu zituzten eta erakusketa hura osatzen zuten kirolariak mahai-inguru batean batuko dituzte euren esperientziak eta gogoetak partekatu ditzaten. Eki-mena Zornotza Aretoa izango da, 18:00etan.

AZAROAK 12, 19

10:00 - 14:00 **"Elikadura kontzientea neska gazteentzat (16-20 urte), indarkeria sexistaren prebentziorako"**

Ez dago alde zuzenik izena eman beharrik

Lehen Musika Eskola egon zen lekuan, lehenengo solairuan. Andra Mariko parrokiaren alboan.

AZAROAK 16

18:30 **Hezkidetza gunean hitzaldia "Nola hitz egin gure seme-alabekin sexualitateari buruz"**

Ez dago alde zuzenik izena eman beharrik

Zelaieta Zentroa

AZAROAK 19

12:00 **"BIZARRURDINAK" Maite Franko ipuin kontalaria**

Zelaieta Zentroa, udal liburutegia

AZAROAK 25

12:00 **Elkarretaratzea eta erakunde adierazpena irakurtzea**

Amorebieta-Etxanoko Udalak herriko elkarte feministek deitutako jarduerak babesten ditu, eta herritarrei parte hartzeko deia egiten die, emakume guztien kontrako indarkeria matxistaren aurrian gaitzespena agertzeko.

Udaletxeko plazan

20:00 - 21:15 **"PRONOIA" Clown ikuskizuna Virginia Imazekin, Berdintasunerako Emakunde sariduna**

Virginia Imaz pailazoak falozentrismoa landuko du, sexismoa lengoia, indarkeria fisikoa eta sinbolikoa, benetako berdintasuna eta berdintasun formala, dena umorez zipzitzinduta. Zornotza Aretoa

AZAROAK 25

21:00 - 22:30 **Berdintasun Scape Room**
Gazte txoko

AZAROAK 26

Berdintasunaren inguruko eskulana
Gazte txoko

AZAROAK 29

20:15 - 21:40 **HIVE Zinekluba**

Kosovoko herri batean, familiak borrokan dabilta hilabete amaierara heltzeko, gerrara joan ziren beren senar, aita eta semeen albisteak jasotzeko irrikitan. Fahrijeko erleek ezta egiteari uzten diotenean, gida-baimena ateratzea erabakitzen du, eta hirira doa etxeko ajvar saltzeko herriko elikagaien denda batean. Bere inozentzia eta goranahia herriko biztanleentzat erronka bat dira, herria kontserbadorea baita, eta gizarteko nozio patriarkalak eta tradizionalak indarrean baitaude bertan. Bizirauteko, bere buruaren jabe izatea eragotzi nahi dioten eraso fisiko eta irainei aurre egin beharko die.

Zornotza Aretoa

AZAROAK 30

18:00 - 20:00 **Gazte Berdintasun berbaldiak. Amorebieta-Etxanoko emakume kirolarien mahai borobila**

Maria Mentxakaren Zornotzako Emakume Kirolariak erakusketa osatzen duten kirolariak izango dira protagonistak. Larrea kiroldegian egongo da argazki erakusketa. Zornotzako kirolariak, argazkilari, eta moderatzaile bat egongo dira, eta kirolaren inguruan gogoeta egingo dute. Zornotza Aretoa



Informazio gehiago: berdintasuna@amorebieta.eus
edo 94 630 00 02 / 010 zenbakira deitu.



Abadiñosexek lanean jarraitzen du sexualitatearen eta generoaren inguruko informazioa gazteei helarazteko

Abadiñosex zerbitzuak urrian berreskuratu zuen bere aktibitatea; urteak daramatzate gazteei eta ingurukoei aholkularitza zerbitzua eskaintzen

ABADIÑO • A. M.

Sexuari eta generoari buruzko informazioa eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dizkiete gazteei eta hauen ingurukoei. "Bertara datozen gehienak DBHn dauden gazteak dira. Euren errealitateagaz loturiko hainbat gai jorratzen dugu bertan, euren interesen arabera. Lehenengo harreman sexualak, sexu segurua, bikote harremanak, identitate sexuala, preferentzia sexualak,... izaten dira gehien ateratzen diren gaiak. Baita indarkeria matxista ere. Euren identitate edo preferentziagaitik diskriminazio ezberdina jasaten dute gazteek, eta zerbitzuan espazio segurua aurkitzen dute honen inguruan berba egiteko", azaldu dute. Hala ere, gazteen ingurukoentzat ere bada. Sexualitatearen eta generoaren inguruko zerbitzu batera jotzea gatx egiten da, gaiaren inguruko tabua oso handia da oraindino eta hau nabaria da. Gainera, bertan egongo diren pertsonak ezagutzeak ere asko egiten du. Gurasoak, irakasleak zein ikasleak gugana etortzeko,

garrantzitsua da aurretik gu joatea eurak dauden tokira. Lehenengo hartu-eman honetan konfiantzazko hartu-emana sortzen bada, honek etorkizunean zerbitzura etortzea errazten du", gehitu dute.

"Askotan, zerbitzura etortzera ausartzen ez direnek Instagramera idazten digute"

Sare sozialek gazteenen bizitzan duten garrantzia ere igarri dute zerbitzuan. "Askotan, zerbitzura etortzera ausartzen ez direnek Instagramera idazten digute. Gehiengtan, zerbitzu presentzialera etorri aurretik ematen duten pausoa izaten da. Instagramek anonimotasun puntu bat ematen diela sentitzen dute, askotan informazioa jaso gura dute, baina beldur dira euren gurasoek jakingo dutela pentsatuta, lehen esan duduan moduan gaiagazko tabua oso handia delako oraindino. Guretzat oso tresna eraginkorra da".



Abasiñosexen ekintza bateko irudia.

ANTZERKIA • A. M.

Memoria eraikiz "zentzumen esperientzia" ikuskizuna emango dute barikuan, Abadiñoko Errota kultur etxean. Mugarik Gabe elkarteak sustatu du obra hau eta memoria kolektiboaren eraikuntza ariketa bat da; bertan, biolentzia matxistaren emakumezko biktimen testigantzak eta biolentzia hori sufritu eta bizirik iraun ahal izan dutenen testigantzak batzen dira. Guztira, mundu osoko 28 emakumeren

"Zentzumenak pizteko eta enpatia areagotzeko bidaia emozionala proposatzen du antzezlanak"

bizipenetan oinarritu dira lana sortzeko. Antolatzaileen esanetan, "zentzumenak pizteko eta enpatia areagotzeko bidaia emozionala" proposatzen du ikuskizunak. Sentsibilizazioaz gainera, indarkeria matxista gizartearen eta estatuen "erantzukizuntzat" hartzeko helburua du antzezlanak. 2018an ipini zuten martxan, eta ordutik Euskal Herriko dozenaka herri bisitatu ditu; 2020tik, espazio itxietarako ere moldatu dute.

'Flores en el asfalto' antzezlanaren hiru emanaldi egingo dituzte barikuan

Hiru emanaldi egingo dituzte Errota kultur etxean; 18:30ean, 19:30ean eta 20:30ean izango dira



'Flores en el asfalto'.

Bereizgarri modura, ikuslegoak emanaldian bertan aukeratu dezake antzezlanaren euskaraz edo gaztelaniaz ikustea. Hiru emanaldi egingo dituzte,

18:30ean, 19:30ean eta 20:30ean. Emanaldiak doakoak izango dira, eta gonbidapenak Errotan bertan edo Mediatekan jaso ahaliko dira.





ABADIÑO

Azaroaren 19an
'Punterengo' 24 orduko laburmetrai leihaketa, 14:00etan.
Azaroaren 20an
Euskaraldia, ihes gela. Ordubeteko saioak, Zelaieta eskolako gimnasioan (11:00/12:00/13:00/16:00/17:00/18:00). Familiei eta 12 urtetik gorakoei zuzenduta. Izena eman behar da, whatsapez: 681 206 080.
Azaroaren 25ean
‘Aketegiko Mari, Alpinismoa eta Mitologia uztartzen’ ikus-entzunezkoa, 19:00etan, Txanportan. Ondoren, Koke Lasagaz solasaldia.
Bertso afaria: Eli Pagola eta Unai Iturriaga, 21:30ean, Errekatxo auzo elkartean.
Abenduaren 1ean
‘Nekatutak’ stand-up umoretsua, 19:00etan, Errota kultur etxean.
Abenduaren 2an
Talotailerra, txokolate eta txorizoagaz, 16:45ean, Traña-Matienako plazan.
Nagusien txapel jaurtiketa,18:00etan.
Film laburren eta postalen sari banaketa, 19:00etan, Errota kultur etxean.
Abenduaren 3an
Sukar erromeria, 17:30ean, probalekuan.

BERRIZ

Azaroaren 18an
Txapa eta banderatzioen banaketa, 18:00etan.
Kantupoteoa, 19:30ean, Olakueta plazan.
Azaroaren 23an
'Miñan' solasaldia Amets Arzallusegaz, 19:00etan, Kultur Etxean.

Azaroaren 26an
La Basu + J. Martina, 19:00etan, Kultur Etxean.
Abenduaren 2an
'Urteak bete, abenturak bizi!' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 17:00etan, frontoian.
Abenduaren 3an
'Bederatzikoa' (Andoni Egaña eta Xabier Lizaso), 19:00etan, Kultur Etxean.
Abenduaren 4an
'eRRe' ikuskizuna, 19:00etan, Kultur Etxean.
Abenduaren 15ean
'Berrizko industrializazioa' bideo aurkezpena, 18:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

Azaroaren 18an
Euskaraldiko lokalean jaso daitezke txapak (11:30-13:30/18:00-20:00).

ELORRIO

Azaroaren 24an
'Euskara y régimen foral' liburuaren aurkezpena, 18:30ean, Iturri kultur etxean. Hizlaria: Cesar Gallastegi.

IURRETA

Azaroaren 18an
Bertso saio ibiltaria (Durangaldeko Bertso Eskola), 19:00etan. Txapak jasotzeko azken aukera (azken orduko izen-emateak).
Abenduaren 2an
DJ Ainhoa. Umeentzako erromeria, 18:30ean, Askondoko karpan.
Bentazarreko Mutiko Alaiak, 19:30ean, herritik zehar.
Abenduaren 3an
Erromeria ibiltaria, 19:00etan, herrian zehar.

MAÑARIA

Azaroaren 18an
Hitano ikastaroa, 17:30ean, liburutegi zaharrean.
Kantupoteoa, 19:30ean.

MALLABIA

Azaroaren 18an
Txapak hartu daitezke liburutegian (09:00-13:00/16:00-19:00).
Azaroaren 19an
Txapa janzte bateratua eta talde argazkia, 18:00etan, parkeko aterpean.
Talde argazkia, 18:45ean.

ZORNOTZA

Azaroaren 18an
Euskaraldirako deia, adarragaz eta txalapartagaz, 19:00etan, Herriko plazatik. Ondoren, **bertsolariak eta sagardo dastapena.** **Triki-poteoa** San Migel eta Gregorio Mendibil ingurutik. Txapak udaletxean eta Zelaieta zentroan jaso daitezke.
Azaroaren 19an
Lemoatx mendira irteera Zornotzako mendi taldeagaz, 10:00etan, Zelaietako iturritik. **Tontorrean argazkia,** 12:00etan. Gero, luntxa eta trikitilariak.
Azaroaren 20an
DJ Kaktus. Disko festa familientzat, 18:00etan, Zelaietako karpan.
Azaroaren 21ean
Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Txapelketa (finalaurrekoa), 18:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.
Azaroaren 23an
'Futbola eta euskara' mahai-ingurua, 19:00etan, Zornotza Aretoan: Hizlariak: Xabi Etxeita, Athleticeko

emakumeen taldeko jokalaria bi, CD Betigol Zornotza Taldeko kide bat eta Ikas-Txikiko kide bat. Moderatzailea: Oihane Irazu.
Azaroaren 24an
Zubiaur musika eskolako ikasleekin eta Eta Abar bertso eskolako ikasleekin ekitaldia, 18:30ean, Zornotza Arteoan. Ondoren, **triki-poteoa, Oihana Bartra eta Jone Uria bertsolariekin,** Zezili Gallartzagoitia ingurutik.
Azaroaren 26an
Iraunkor txarangagaz poteoa eta jokoak, 21:00etan, Pike parkean (Zornotzako Gazteak).
Azaroaren 27an
Euskal truke merkatua, 10:30ean, herriko plazan. Ondoren, **enkantea.**
Azaroaren 28an
'Amagana' dokumentala eta ikuskizun musikatua (Bihotz Gorospe + Itziar Zabala), 18:00etan, Zelaietako auditoriumean.
Azaroaren 29an
'Kafetan berbetan', Ahobizi eta Belarriprest guztiek elkarregaz berba egiteko hitzordua, 18:00etan, Zelaietako karpan.
Abenduak 2an
Euskaraldiaren amaiera ekitaldia, 19:00etan, Herriko plazan (eguraldi txarragaz Zelaietako karpan). Ondoren, **kantu-poteoa Kittu taldeagaz.**
Abenduaren 3an
'Miñan' liburuaren irakurraldia, 10:30etik 13:30era, Zelaietako karpan. Parte hartzeko zornotzarrak. euskaraldia@gmail.com helbidera idatzi behar da.
'Batetik bestera' (Benetan Be konpainia), 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Zine-
ma

:: Berriz
KULTUR ETXEA
• **El cuarto pasajero**
barikua 18: 19:30
domeka 20: 19:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA
• **La Maternal**
barikua 18: 18:30/21:00
zapatua 19: 18:30/21:00
domeka 20: 18:00/20:30
astelehena 21: 18:00 /20:15
martitzena 22: 18:00 /20:15
eguzartena 23: 19:00

• **Sintiéndolo mucho**
barikua 18: 18:30
zapatua 19: 18:30
domeka 20: 18:00
astelehena 21: 18:00
martitzena 22: 18:00

• **Monstruos**
barikua 18: 18:00 /21:00
zapatua 19: 18:00 / 21:00
domeka 20: 17:30 /20:30
astelehena 21: 17:30 /20:15
martitzena 22: 17:30 /20:15

• **As Bestas**
barikua 18: 20:00
zapatua 19: 20:00
domeka 20: 19:30
astelehena 21: 19:30
martitzena 22: 19:30

• **Invisibles**
eguzartena 23: 19:00

• **Il Barbiere Di Siviglia**
eguzartena 23: 19:00

::Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA
• **El Vasco**
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:00

::Zornotza
ZORNOTZA ARETOA
• **Un año, una noche**
zapatua 19: 20:00
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:15

• **Hopper Oilaskoerbia**
zapatua 19: 17:00
domeka 20: 17:00

• **Las siamesas**
martitzena 22: 20:15



Laubideta kalean energia efizientzia hobetzeko lanak egin ditu Durangoko Udalak.

Durangon eguzki izpien zain energia kontsumoa %35 jaisteko

Durangoko Udalak Energia eta Klima Plana landu berri du. Norabide horretan, 600.000 euroko inbertsioa egingo du herriko eraikin publikoetan 1.200 eguzki plaka instalatzeko datozen hileetan

Durangoko Udalak Energia eta Klima Plana landu berri du. Norabide horretan, 600.000 euroko inbertsioa egingo du herriko eraikin publikoetan 1.200 eguzki plaka instalatzeko datozen hileetan.

Energia eta klimaren inguruko etorkizuneko erronka globalei aurre egiteko asmoz, Durangoko Udalak Energia eta Kli-

ma Plan berri bat ondu du datozen urteetarako, eta helburu nagusien artean 2030erako Durangoko udal eraikinen energia kontsumoa %35 murrizteko neurriak hartzea erabaki du.


Horretarako, ekintza plan bat zehaztu da hainbat arlotan hobekuntzak egiteko; besteak beste, Durango Euskal Autonomia Erkidegoan energia abangoardian ipiniko duten eta da-

tozen hileetan garatuko diren proiektu garrantzitsu bi. Izan ere, 600.000 euro inguruko inbertsioari eskerrak, Durangoko Udalak 1.800 plaka fotovoltaiko inguru ipiniko ditu hainbat udal eraikinetan, horien autohorniduran aurrera egiteko asmoz.

“Inbertsio hauen bitartez, apustu argia eta erreala egingo dugu sortzen dugun aztarna energetikoa eta klimatikoa murrizteko. Bada garaia gai honi beste martxa bat sartzeko eta berbetatik ekintzetara pasatzeko. Horretarako, Durangon hileak daramatzagu plan hau lantzen, eta orain bertatik jasotako neurriak eta proiektu zehatzak garatzea dagokigu”, adierazi dute Ima Garratatzu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak.

2.942.409 kWh-ko elektrizitate kontsumoa

Garratatzuk eta Riosek aipatu duten aurrelana herriko klima eta energiaren egoeraren diagnostikoa egitea izan da. Diagnostiko horretan zehazten denez, herriko berotegi gasen %62 ibilgailuen trafikoak sortzen du gaur



egun. Gainera, 2012tik emisio orokorrekin beheranzko joera orokorra duten arren, modelizaturiko agertokiaren arabera, isuriak murrizteko neurriak hartzen ez bada, 2030ean Durangok 122.896 tona CO2 sortuko lituzke; hau da, 2018an baino %41 gehiago, batez ere garraio sektoreko isurketen gorakadagaitik.

Diagnostikoaren arabera, Durangoko Udalak 68 jabetza ditu, 62 eraikinetan multzokatuta, eta urtean 2.942.409 kWh elektrizitate eta 4.924.586 kWh gas kontsumitzen dute. Gainera, guztira 3.941 argi puntu ditu herriak sakabanatuta, eta horiek 68 koadro elektrikoren bitartez kudeatzen dira. Kasu honetan, 2.324.257 kWh-ko elektrizitate kontsumoa sortzen dute.

Gaur egun, batez ere lau udal eraikinetan daude instalazio berriak (Landako I kiroldegian, Landako Eskolan, Musika Eskolan eta Laubidetako udal etxebizitzetan), eta urtean 14.986 kWh sortzen dituzte. Hala ere, datozen hiletan instalazio fotovoltaikoak ipintzeagaz batera, aurreikuspenak biderkatu egingo dira, 397.644 kWh sortzea espero baita, eta horrek, zalantzarik barik, Durangoko Udalaren helburua lortzen lagunduko du; hau da, energia kontsumoa gutxienez %35 murriztea.

Lehenengo fasea aurten bertan lizitatuko da, 328.000 euroko balioagaz, Landako Eskolan, Landako II kiroldegian eta Ezkurdiko pilotalekuan 760 plaka fotovoltaiko inguru instalatzeko helburuagaz. Lanak 2023. urte hasieran hasi daitezkeela aurreikusi dute udal ardura-dunek.

Hala ere, apusturik handiena datorren urtean egingo da, Landako Gunean 416 plaka ipiniko baitira 350.000 euroko inbertsioaren bitartez. Plaka horien bitartez, urtean 243.000 kWh sortzeko aurreikuspena dago, eta horien bitartez helburu bi egikaritu ahalko dira: batetik, Landako Gunea bera autohornitzea, eta, bestetik, inguruan dagoen zenbait udal eraikin hornitzea.

Era berean, 21 ildo estrategiko garatu dira Durango energetikoki eta klimatikoki jasagarriagoa egiteko. Horien artean daude, besteak beste, azpiegiturei, espazio publikoari, lehen sektoreari, etxebizitzari, zerbitzuei eta industriari dagozkienak.

Garrastatzaren eta Riosen esanetan, "bide luzea egin behar dugu gure jardueren ingurumenean eragiten dituzten ondorioak arintzeko. Energia iraunkorraren aldeko apustua egin behar dugu, gure aztarna ahalik eta txikiena izan dadin, eta udal honentzat lehentasunezko gai bat da hau. Lan garrantzitsua egin dugu diagnostikoa eginda eta Energia Plana idatzita, eta, orain, jasotzen diren ekintzak egiteko txanda da, denon artean Durango jasagarriagoa eraikitzeko".



Aurten, Landako Eskolan, Landako II kiroldegian eta Ezkurdiko pilotalekuan 760 plaka fotovoltaiko inguru instalatzeko lizitazioa egingo da, 328.000 euroko inbertsioagaz.



2023an Landako Gunean 416 plaka ipiniko dituzte, 350.000 euroko inbertsioaren bitartez. Plaka horien bitartez, urtean 243.000 kWh sortzeko aurreikuspena dago.



Nerea Zarandona eta Pili Alberdi.

"Kriskitineko familia berriro elkartzeak ilusio handia egiten digu"

Durangoko dantza taldeak San Agustineko oholtza gainean ospatuko du bere 35. urteurrena, bihar, zapatua

DURANGO • JONE GUENETXEA

Kriskitin dantza taldeak 35. urteurrena ospatuko du, zapatuan, San Agustin kultur gunean. Emanaldi bikoitza egingo dute, 17:00etan eta 19:30ean. 1986an, taldea sortu zenean, ez zioten jarraitu Durangaldeko dantza taldeek zuten ereduari. Dantzari Dantzaz gainera, beste ikuskizun eta dantza batzuk lantzen hasi ziren. Berrasi, Muntzaratz, Kriskitin Hotza, Akelarrea, Ezkontza Aintzinako Erara eta Surrandiak izan dira prestatu dituzten ekimenetarikoz batzuk. Europako hainbat herritan ere taularatu dituzte ikus-

kizunok. Familia handi hau elkartzeko aitzakia izan da urteurrena. Pili Alberdi Fernández Kriskitineko presidenteak eta Nerea Zarandona Gómez musikariak taldearen ibilbidea errebasatu dute.

Zenbat urte Kriskitinen?

Pili Alberdi. Ni hasiera-hasieratik.

Nerea Zarandona: 14 urte nituela Herri Maite taldeko zuzendari Antonio Nuñezi laguntzen hasi nintzen. Antoniok utzi zuenean, Nagore Goikoleak, Juan Antonio Aromak...denok jarraitu genuen.

P.A.: Aroma hasieratik dabil. Sorre-

ratik jarraitzen dugunok Aroma, Miren Zamakona eta hirurok gara. Pili, gogoratzen duzu zelan sortu zen taldea?

P.A.: 1986an Durangoko Euskal Jaia antolatu zen Ezkurdin. Gau Txori, Txoritxu Alai eta Tronperri Zaharra taldeek parte hartu zuten. Gu ikustera joan ginen eta pentsatu genuen gure inguruko gizonak dantzan egiteko gauza baziren, geu ere izango ginela. Horrela, urte horren amaieran Kriskitin sortu genuen. Ikuskizun bat antolatu genuen 1987ko maiatzaren 30ean. Apurka-apurka taldera jende gehiago batzen hasi zen.

N.Z.: Gogoan dut hasierako ikuskizun hartan musikariok espektakuluaren erdian ere aritzen ginela dantzariak arropa aldatu ahal izateko.

P.A.: Hurrengo pausoa gure umeak dantzan sartzen hasia izan zen. Eguen Zurin eta Bizerdantzan, esate baterako. Hortik aurrera, 22 neska eta 22 mutileko taldea sortu genuen. Urterik onenak izan ziren horiek. 1995etik aurrera, Ezkontza Aintzinako Erara bost urtero antolatzen genuen. 2020koa ez genuen egin, COVIDagaitik. Etenaldi hori oso gogorra izan zen dantza mun-

duarentzat, berriro hasia kosta egin zaigu eta.

Beherakada hori orokorra da beste herri batzuetan ere. Transmisio arazo bat dago?

P.E.: Dantzak ez du lehen besteko erakartasunik ume eta gazteen artean. Ez dakigu zelan ekarri umeak eta gazteak geurera. Talde batera disfrutatzea etorri behar da.

N.Z.: Gainera, gazteak ez dira sartzen begirale edo monitore legez.

Taldeak izan du gorabeherarik?

P.A.: Bai, jakina. 90eko hamarkadan beherakada egon zen, baina gero berriro indartu zen. Horren osteko loraldian ikuskizun ederrak egin genituen. Tradizioa zaindiz, ikuskizun berriak egin genituen. Orain, ume eta gazteen taldea daukagu eta baita Miren Zamakonaren helduentzako taldea ere. Plazako dantzak irakasten ditugu eta 70 lagunek partze hartzen dute; emakumeak dira batez ere.

Durangaldean Dantzari Dantzaren arloan berdintasunaren aldeko bidea zabaltzen zuten izurtzan ospatu zen Durangaldeko Ezpadantzari Egunean. Zelan bizi izan zenuten hori talde barruan?

P.A.: Gogorra izan zen, bagenekiela-ko kritikak izango genituela. Baina

kritikak dantza taldeen aldetik jaso genituen, ez herritarren aldetik. Guk pentsatu genuen horixe zela momentua, eta bagenuela gaitasuna. Beste arlo askotan lorturiko berdintasuna zergaitik ez dantzan? Ilusioagaz geunden eta errespetu guztiagaz dantzan egin genuen. Denborak jendea bere lekuan ipintzen du eta beste taldeek ere dantza parekideak bultzatu dituzte. Egun horretaz gainera, gogoratuko nuke orain 5-6 urte Kriskitineko Maider

Belaunaldi asko batuko gara, kasu askotan familia bereko belaunaldi bi irtengo dira oholtzara

Zubizarretak kaxarranka dantzatu zuela. Bestalde, orain dela gutxira arte plazan eurek bakarrik dantzan egiterakoan gizonak protagonista sentitu dira, badirela nor. Neskak sartzerakoan ikusi dute orain ez direla hain protagonista. Orain, dantza talderik gehienetan neska kopurua handiagoa da, mutil gutxi dago. Gure taldean, 7tik 17 urtera arteko ume eta gazteek Dantzari Dantza ikasten dute. Ia denak neskak dira.

Zer ikusiko dugu zapatuko ekitaldian?

P.A.: Belaunaldi asko batuko gara, kasu askotan familia bereko belaunaldi bi irtengo dira oholtzara. Gure kasuan, hiru belaunaldik parte hartuko dugu, nik neuk, alabak eta ilobak. Hori guztia antolatzea itzela izan da. Dantzari batzuek bi eta hiru arropa aldaketa egingo dituzte. 125 dantzari igoko dira oholtzara eta 235 jantzi erabiliko ditugu.

Dantzari eta musikari ohiek zelan hartu dute urteurrenean oholtzara igotzeko gonbita?

N.Z.: Musikariak oso ondo. 15 bat musikari batuko gara. Batzuek instrumentua utzita izan dute eta ekitaldi honetarako berriro entseatzeko hasi dira. Kriskitineko familia berriro elkartzeak ilusio handia egiten digu.

P.A.: Taldean gaztetan egon ziren batzuek ikasketengaitik utzi zuten eta orain berriro elkartzea oso polita da. Emozionatu egin nau denok berriro elkartzea denbora pasatu izan ez balitz lez.



Kriskitinen lehenengo dantza emanaldietariko bat: 'Berrasi'. Kaxarranka.



Taldearen 25. urteurrenean ateratako familia argazkia.

"Altueran dantza egiteak errespetu handia ematen zidan, baina neure buruari ipini nion erronka bat izan zen "

Maider Zubizarreta umeen taldeko irakaslea da. Bihar kaxarranka dantzatuko du San Agustin kultur guneko emanaldian



DURANGO • J.G.
Maider Zubizarreta Malaxetxebarria (Durango, 2002) umeen taldeko monitore da Kriskitin taldean. Aste barruan Iruñan ikasten du, eta barikuetan, Durangora bueltatzen

denean, dantza irakaslea da Kriskitinen. Biharko emanaldian kaxarranka dantzatuko du. Zelan doa biharko ikuskizunaren antolaketa? Kaos apur bat da, gauza asko

dugulako prestatzeko. Baina oso emozionatuta nago taldeko lehengo dantzariekin oholtza partekatuko dudalako eta elkar ezagutuko dugulako. Lehengo eta oraingoan artean egun bat konpartitzea oso polita izango da. **Dantzaria lehenengo eta irakasleagero, Kriskitinen. Zelako esperientzia izan da?** 8 bat urte gaz hasi nintzen Kriskitinen, apur bat gazteagoak zirenekin. Adinean aldea zegoenez, maila handiagoa hartu nuenean nagusien taldean parte hartzen hasi nintzen. Salto hori eman nuenean, talde bietan egoten hasi nintzen. Horrela, umeen taldean irakasle izatera pasatu nintzen. Ume talde bat edukitzetik lau edukitzera pasatu ginen. Gaur egun, irakasten eta koordinatzen nabil. **Zelan egiten da hori aste barruan kanpoan bizi izanda?** Nahiko gatxa da. Sasoi batean bost monitore ginen, baina urteak pasatu ahala egoera aldatzen joan da. Orain ia denok kanpoan gaude. Iruñan ikasten dudanez, aste barruan han egoten naiz eta barikuetan bueltatzen naiz. Baina, ez nago bakarrik. Bi pertsonen artean dantzako entseguak arduratzen gara eta koordinazioaz ere bai. Gainera,

beste kide batzuen laguntza ere izaten dugu. **Kriskitinetik kanpora ere kaxarranka dantza egin duen lehenengo emakumea izan zara.** 2018ko abenduan dantza tradizionalen emanaldi bat prestatu genuen. Plateruenean izan zen. Euskal Herriko hainbat dantza landu genuen. Umeentzako dantza berriak egin ziren eta guk ere dantza berriak landu gura genituen. Urte askoan kaxarranka egin barik zegoenez, dantza hori plazara atera gura genuen. Dantzari nagusietatik neuk egin nuen dantza hori. Kriskitinen lehenengo emakumea izan nintzen dantza hori egiten, eta orokorrean begiratuta ere lehenengoetarikoa. **Zelako esperientzia izan zen?** Politia. Altueran dantza egiteak

errespetu handia ematen zidan, baina neure buruari ipini nion erronka bat izan zen. Oso pozik eta harro amaitu nuen. San Agustín kultur guneko biharko emanaldian ere kaxarranka egingo dut. **Zelan bizi izan duzu parekidetasunaren gaia dantzaren munduan?** Hasi nintzen taldean neskak izan gara denak, eta ostekoak ere bai bi hiru dantzari kenduta. Beraz, ez dut generoaren desberdintasun hori bizi izan, ia mutilik ez delako egon. Dantza denak naturaltasun osoz ikasi ditugu. **Ikaslea eta irakaslea izan zara. Zelan ikusten duzu dantza tradizionalaren etorkizuna?** Zaletasuna galtzen ari da. Guk umeen lau talde ditugu, baina ingurura begiratuta talde askok ez dute jarraipen handirik. Gazteen artean oso gutxi geratzen gara. Inguruan ez da dantza sustatzen. Erromeria batera joan eta jendeak ez daki dantzan. Umeak beste erreferente eta beste zaletasun batzuekin datoz eta euskal dantzak ez dira hor sartzen.



Gai librean

Larregi

Bizikleta eta zakutoak hartuta joan nahiko zenuke naturak dena hartzen duen paisaia batera, eta handik Zeelanda Berriko Milford Sound inprimatuta daukan postal bat bidali, edo Norvegiako Lofoten irlak, Islandiako Westfjord penintsula, Eskoziako Hebridak uhartedia zein Kanadako Peyto lakua. Zuhaitz espezie ezberdinen lurrinez ohartzeko patxadarekin bizi. Txorien kantuak eta txioak bereizi. Hosto gorrien bilduma egin eta bidean agertzen diren ustekabeak ospatu. Basatia den handitasun horretan bakardadea sentitu. Zeu eta zeure hats beroa baino ez bertan, bakarrik egotearen pribilegioa praktikatzera joatearen ederraz gogoetan. Zenbat lur bizitzat bakararentzat. Po-po-poooooooo. Autoak beregana-



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Lurra tonutik irtendako bozgorailu bat da. Gehiegi gara bizi garen bezala bizitzeko

Hor doa mugikorrari oihuka hitz eginez gizon bat. Beste bat. Hamabi kontatu dituzu

tu du zure arreta: po-poooo, pooooo! Rickshaw bati ari zaio imintzioka gidaria haiena soilik den xextran. Kolore mosaiko bat duzu alboan. Tarrat moztu dute sari bihurtzeko oihala laranja. Hor doa mugikorrari oihuka hitz eginez gizon bat. Beste

bat. 12 kontatu dituzu. Arrautza kaxak dozenaka aurreko mostradorean; ekilibrioan, bizirik kaiolatan sartutako oiloen gainean. Kakaraka eta zala-partaka. Danda lurrera zabor poltsa bat. Gora begiratzean kortina horixka baten azken punta baino ez duzu ikusi. Izerdi usainak hartu du dena. Eta sirena. Ni-no-ni-no-niiiiii-nooooo. Ustel kiratsa. Barruraino. Balantzaka eta zorabiatuta karrika zaratsatu eta gainpopulatutan. Zenbat lur behar da hainbeste bizitzarentzat? 8.000 milioi biztanle zenbatu dituzte Lur planetan —tartean %0,0125 zorioneko euskaldun—. Lurra tonutik irtendako bozgorailu bat da. Gehiegi gara bizi garen bezala bizitzeko. Larregi.

Sasoia hartu ahala Elorriok gora egin du sailkapenean, eta Euskal Ligako herena joan denean onenen artean kokatu da

Denboraldiaurrea gura baino laburragoa izan zenez, ligako lehenengo partiduetan prestaketa fintzen eta erritmoa hartzen joan dira sasoi betera heldu arte

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Urtea joan eta urtea etorri, Elorrio futbol klubak Euskal Ligan jarraitzen du, Euskadiko mailarik altuenean, eta mailako herririk txikiena dela kontuan hartuta azpimarratzeko datua da hori. Gainera, goiko taldeekin borrokan aritzen da sarritan, eta horixe da aurtengo kasua ere. Liga herena joan denean laugarren kokatuta dago, hirugarrenarengandik puntu bakarrera.

Liga aste biko denboraldia egin da hasi zuten. Beraz, gainerako taldeekin alderatuta desabantailan zeuden. Eibarren eta Bizkerreren kontrako partidu oso onak, beste eskasago batzuekin —Hauskaltz eta San Ignacioren kontrakoak— tartekatu zituzten. "Bagenekien hasieran kostatu egingo zitzai-guna", onartu du Gontzal Arana entrenatzaileak. Baina partiduak pilatu ahala erritmoa hartzen eta prestaketa fintzen joan dira eta emaitzek sasoiaren daudela erakusten dute. Azken bost partiduetatik hiru irabazi eta bakarra galdu dute, Alaves liderraren zelaian.



Elorrioko futbol klubeko jokalariek martitzeneko entrenamenduaren aurretik, Eleizalde futbol zelaian.

Talde zabala

Aurten talde zabala dute. Beteranorik gehienek jarraitu egiten dute eta zortzi jokalaria berri batu zaizkie, euretariko lau harrobitik igotakoak: Izaro Sanz, Itsaso Soria, Maider Aranguren

eta Udane Olaberria. Beraz, beteranoen esperientziari odol gaztea batu zaie eta, orain arte, funtzionatzen ari den errezeta da. Gainera, ematen du datoren urteetan ez dutela beheko mailetatik hornitzeko arazorik

izango, inoiz baino gazte gehiago dituzte-eta Zalduak eta Elorriok elkarregaz daramaten Biak Bat harrobiko klubean.

Hurrengo partidua gaur bertan jokatu dute, 21:00etan, Elorrioren. Iaz bigarren tokian

amaitu ostean, aurten espero baino patailago dabilen Anaitasuna talde azkoitiarra —12. postuan daude— izango dute aurkari. Garaipen batek hirugarren kokatuko lituzte elorriarrak behin-behinean.

SAN ANDRES JAIK 2022

AZAROAK 20, DOMEKA

10:00 Zaldibarko XX. Mendi bizikleta marxa. Irteera udaletxeko plazan.

11:30 Bike trial zirkuitua haurrentzat (bizikletak barne) + Irene Caminosen eta Javi Alonsoren bike trial erakustaldia.

AZAROAK 25, BARIKUA

19:00 Zaldibarko pentsionistek jaien hasiera iragartzeko txaplogua jaurtiko dute udaletxeko balkoitik. Ondoren buruhandiak egongo dira.

19:30 Pintxo solidarioak eta DJ Josemari Olazarren.

AZAROAK 26, ZAPATUA

18:00 -18:30 Nikaraguako dantza taldearen erakustaldia udaletxe ondoan, ume eta helduentzat.

19:00-20:30 Dantzatzeko prest! Disko festa udaletxe ondoan.

19:00 Benito Lertxundiren kontzertua Olazar pilotalekuan.

AZAROAK 27, DOMEKA

11:00-13:30 Arku taldearen ate irekleri.

Jardunaldia Zaldibarko Arku taldearen eskutik, Olazarren.

11:00 Kalejira EINGOU taldearen eskutik.

11:00 Zaldibarko XXIII. neguko nekazari azoka.

AZAROAK 30, EGUAZTENA

12:30 Meza eta kontzertua San Andres parrokan, ondoren bertara hurreratzen direnentzako mokadua.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

18:00 Olazar txapelketako pilota partidak Olazar pilotalekuan.



Lau eta erdian elite mailako final laudenak jokoan, Berrizen

Iazko txapelduna den Amaia Aldaik lesio luze batetik bueltan den Laia Salsamendi gaztea izango du aurkari

PILOTA • J.D.
Berrizko Olakueta pilotalekuak Master Laboral Kutxa lau eta erdiko txapelketako final laurdenak hartuko ditu domekan, 11:30ean. Sarrera doakoa izango da.
Faborito argirik ez duen lehenengo partiduan, Enara Gamindek eta Maddalen Etxegaraik neurtuko dituzte indarrak. Gamindek hirugarren postuan amaitu zuen iazko txapelketan.
Bigarren partiduan, aurreko kanporaketa nahiko eroso gain-

ditu zuen Nora Mendizabalek —22-12, Leire Gleanoren aurka— iazko azpitxapelduna izango du aurkari: Miriam Arrillaga.
Hirugarren partiduan, iazko txapelduna ikusteko aukera egongo da: Amaia Aldai. Aurten, beteak beste, Udako Torneoa eta Nafarroako Torneoa irabazi dituen dimoztarrak Laia Salsamendi izango du parez pare, belau-neko lesio gaizto bat gainditu eta kantxetara bueltan den pilotari nafarra.



Nora Mendizabal Leire Gleanorekin aurtengo partidu batean. **EMAKUME MASTER CUP**

Arte martzialetan erreferente bihurtu gura duen txapelketa antolatu dute zapaturako

Aurten dozena bat taldegaz hasiko dute ibilbidea, eta aurrera begira Durangon egonkortu gura dute ekimena



Wadokan taldeko kirolariak Toledoko txapelketan, otsailean.

ARTE MARTZIALAK • J.D.
Landako kiroldegia arte martzialen txapelketa berri baten lekuko izango da zapatuan, egun osoan zehar. Wadokan klubak antolatuta, open izaera izango du; hau da, askotariko diziplinak batuko dira tatami gainean, hala nola karatea, taekwondo, ninjutsua, kung fua...
"Diziplina bakarrekoeekin alderatuta, horrelako txapelketak gaxagoak dira epaitzeko, baina beste ezerk baino hobeto islatzen dituzte Wadokanetik sustatu gura ditugun balioak", adierazi dute klubetik ohar batean. Wadokanek izaera honetako txapelketa askotan par-

te hartu izan du, eta emaitza onak lortu izan ditu. Esaterako, otsailean 40 domina eskuratu zituzten Toledoko txapelketa prestigiotsuan.
Lehenengo aldiari jarraipena eman gura diote eta apurka ope-na erreferente bihurtu gura dute estatuko iparraldean. Honako hauek dira aurten Euskal Herri-ritik nahiz estatutik etorriko diren klubak: Bushido Gym (Torrelavega), Internacional Kakuto Bugei (Toledo), Kempo Barbanza kluba (Galizia), Karatekas.com (Barakaldo), Wadokan (Zornotza), Mugendo Euskadi (Deustu, Gasteiz, Indautxu eta Basauri) eta Durango Ninjutsu Wadokan.

Tabirakok 1.200 euro lortu ditu Durangoko minbizaren aurkako elkarteari laguntzeko



Elkarteari txekia emateko ekitaldia.

SASKIBALOIA • J.D.
Urriaren 19an, Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Tabirako saskibaloit taldeak ekimen solidario bat hasi zuen: izerditako bereziak kaleratu zituen egun horri dagokion lazo bereizgarriagaz eta Tabirakoren letrekin. Ekimen horregaz 1.200 euro lortu zituzte eta baturiko diru guztia Durangoko Minbiziaren Aurkako Elkarteari eman zioten joan zen asteburu-ko partiduen atsedendian. Elkarteko ordezkariak Alicia Gómez Tabirakoko presidentearen eskutik jaso zuten txekia. Ondoren, saskibaloit klubeko eta elkarteko kideek familia argazkia atera zuten elkarregaz.
Tabirakoko kideak gustura agertu dira ekimenak izandako harreragaz, eta bidelagun izan dituzten babesle eta erakundeak eskertu dituzte.

Jokaldia

Mugarik gabeko gorakada II

2019ko martxoan 'Mugarik gabeko gorakada' izeneko iritzi artikulua idatzi nuen astekari honetarako. Bertan Promozio binakako finalerako txartela lortu berri zuen pilotari bati buruz hitz egin nuen; Aitor Elordiri buruz, hain zuzen. Hiru urte eta erdi pasatxoren ondoren, lehen mailako lau t'erdiko hirugarren postua eskuratu berri du Aitorrek.
Mallabitarrek azken asteotan egin duena ikaragarria izan da; izan ere, bidean Jakarekin, Ezkurdiarekin, Lasorekin, Altunarekin eta Peio Etxeberriarekin gurutzatuta, partidu bakarra galduta bukatu du. Horrela, goi mailako pilotariekin lehiatzeko gai dela sinetsarazi digu, eta, are garrantzitsuagoa dena, bere burua ere konbentzitu du.



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Mallabitarrek azken asteotan egin duena ikaragarri izan da. Goi mailako pilotariekin lehiatzeko gai dela sinetsarazi digu

Elordiren kasuak zer pentsatua eman behar luke epe laburreko emaitzak soilik bilatzeko joera dagoen garaian

Lana erruz eginez eta etapa guztiak gaindituz erraz iritsi da Aitor puntu honetara. 2016an debutatu zuenetik bigarren mailan jokatu du nagusiki, momentu askotan aukera hoberen bat merezi izan duen arren. Hala, hiru urte egin zituen lehen finalera iritsi eta Oier Etxebarriarekin Promozio binakakoa irabazi zuen arte. Eskuz banakako fina-

la ere urte berean jokatu zuen, Darioren kontra galduz, eta harrezkero hasi zen pilotazalea pixkanaka Elordi kontuan hartzen. Hurrengo urtean buruz buruko bi finalak jokatu lau t'erdiko txapela jantzi zuen; eta 2021ean, aldiz, berriz ere binakako azkenekora iritsi zen, baina ezin izan zuen garaipena lortu. Horrez gain, 2020ko kaiolako txapela irabazteak maila nagusian jokatzeko saria zekarrela uste genuenean, Elordik Irribarriaren kontrako aurre-kanporaketa bat jokatu behar izan zuen berea behar lukeen tokia irabazteko. Ataka gainditu ondoren, Artolari irabazi eta final laurdenetako ligaxkan sartu zen.
Honegatik denagatik uste dut Elordiren kasuak zer pentsatua eman behar lukeela kirolariekin pazientzia gutxi izateko eta epe laburreko emaitzak soilik bilatzeko joera dagoen garaian.



// AUKERA

AUKERA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 116.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F. 145.000 €.**

ZALDIBAR: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. terraa. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**

BERRIZ: (MURGOITIO) 80 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela, Terraza, Argitsua. **C.E.E.=E. 110.000€**

MATIENA: 2 logela, komuna, sukaldea handia. Igogailua. **C.E.E=F.129.000**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

MONTEBIDEO: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garaje bikoitza itxia. **C.E.E.=F. 275.00 €**

SANTA SUSANA. 2 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F.199.500 €**

ASK. ETORBIDEA: 119 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaje bikoitza. **C.E.E= E. 312.000 €**

ANBOTO. 3 logela, komuna eta egongela. Eguzkitsua. **C.E.E=E. 195.000 €**

KALEBARRIA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= F. 140.000€**

SAIBIGAIN: Apartamentua./ Bulegoa. **C.E.E=F. 184.000 €**

TRONPERRI: 117m2. Erdialdean. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txoko komunitarioa. **C.E.E.=F. 270.000 €**

MARTXOAREN 8*KO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E.= E. 330.000€**

ALLUITZ: 4 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia terrazarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E= F 245.000 €**

EZKURDI: 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. garajea aukeran. **C.E.E=E. 240.000 €**

ASK. ETORBIDEA. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea aukeran. **C.E.E= E. 275.000 €**

ABADIÑO.(TERESA LARIZ): 81m2. 2 logela, komuna eta egongela. Terraza. Ganbara. **C.E.E.= E. 160.000 €**

JUAN OLAZARAN. Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Eskegitokia. Garajea eta trasatelekua. C.E.E= B. Jantzia.

KOMENTUKALE. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **C.E.E.= E. 239.500 €**

SAN FRANTZISKO. 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia ganbararekin. **C.E.E.=E. 195.000 €**

ABADIÑO: Pabilioia: 172 m2. Bulegoa, aldagelak eta komuna. Alokairuan/ Salgai. **180.000€**



// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarrizko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.



www.inmoduranguesado.com

DURANGO

74,25
m²

3
logela

JUAN MARI ALTUNA: Egongela, sukaldea eta komuna (berriztatua). Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Argitsua. Igogailua. Leku onean kokatua (Zonalde berdeak, zerbitzu guneetatik gertu, anbulategitik gertu) Hobekuntzak behar ditu. 6 m²-ko trastelekua. ITE oraintsu pasatutakoa. Garaje itxia, etxe bizitzatik gertu + 30.300 €.

156.500 € C.E.E: E

DURANGO

104,54
m2

4
logela

TORRE DE LARIZ: Egongela, sukaldea, jangela 4 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Leku onean kokatua (Santa Ana) Hobekuntzak behar ditu. BI APARTAMENTU BIHURTZEKO AUKERA. INBERTSIO GISA IDEALA.

175.500 € C.E.E: E

DURANGO

85
m²

3
logela

ASTEPE: 85 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Igogailua. Seigarren solairua. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-hegoaldea) Argitsua. Ikuspegiak. leku onena kokatua. 6 m²-ko trastelekua. Berrinkuntzak behar ditu. Garajea aukeran + 19.000 €

230.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO

75
m²

3
logela

ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guneetatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.

187.000 € C.E.E: Bidean

MUNTSARATS

76,4
m²

2
logela

ARLOZABAL: 76,4 m². Galeria, 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7.50 m²-ko trastelekua eta 14,29 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.

189.000 € C.E.E: Bidean

MATIENA

89
m²

3
logela

TRAÑABARREN: : Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m²-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.

229.000 € C.E.E: Bidean



//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua.

Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**

MONTEBIDEO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **275.000€ / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZO: Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

OTXANDIO

ZELAIETA AUZO: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **348.000€ / E.E.Z=BIDEAN.**

Botikak

BARIKUA, 18 · 09:00-09:00	RUIZ EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
BAZAN URIBARRI 5 - DURANGO	09:00-22:00
GUTIERREZ TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 21 · 09:00-09:00
SANCHEZ URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO
IRUARRIZAGA SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	RUIZ EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 19 · 09:00-09:00	SANCHEZ URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	SARASKETA LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
RUIZ EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 22 · 09:00-09:00
BAZAN URIBARRI 5 - DURANGO	BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	RUIZ EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	09:00-22:00
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	SANCHEZ URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	SARASKETA LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	EGUAZTENA, 23 09:00-09:00
SANTAMARIA ERREKAKALE 6. - ELORRIO	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	RUIZ EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GUTIERREZ TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	09:00-22:00
GOIRIA SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	SANCHEZ URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SARASKETA LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 24 · 09:00-09:00
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
09:00-22:00	RUIZ EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
SANCHEZ URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 20 · 09:00-09:00	SARASKETA LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO	IRUARRIZAGA SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Aner!** Gure etxeko mutil txikiak 5 urte egin zituen azaroaren 10ean. Jarraitu orain arte bezain alai. Musu handi bat etxekoen partez.



Zorionak eta mosu handi bat, laztana, zure zortzigarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Zure familia guztia.



Zorionak, **Iraia!** aitatxoren eta amatxoren partez! 3 urte egin zituen gure printzesak. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu.



Zorionak, txiki! Dagoeneko bi urte dituzu, **Unai Matías!**
Mosu handi bat Yosuren eta Carmenen partez.



Izei, zortzi urte egin dauezeneko, pedaletan eta arineketan hasi jaku. Eutsi gogor!



Zorionak, **Sofia** maitea, familia osoaren partez, bihotz-bihotzez. Ondo pasa, bihotza, mosu handi-handi bat. Askok maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 10° / 7° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 16° / 9° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 16° / 10° ☁️
DOMEKA 🌡️ 14° / 8° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 12° / 8° ☁️	EGUENA 🌡️ 16° / 11° ☁️

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

“Bideoek izan duten harrerak asko harritu gaitu; ez genuen espero”

Elene Barrutia eta Lucía Meruelo, Mikel Martinezegaz eta Ane Tamayogaz batera, 'Barratik kalera' ekimenaren atzean daude. Jai giroan egindako elkarrizketak sareratzen dituzte



Lucía Meruelo Garcia
'Barratik kalera'
BERRIZ | 1999

Elene Barrutia Loroño
'Barratik kalera'
DURANGO | 2002

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI
Martxoan jaiotako proiektua da 'Barratik kalera' (@barratik_kalera). Youtuben hasi zuen ibilbidea, baina gaur egun TikTok, Instagramen eta Twitterren hartu du lekua. Parranda giroan, askotariko gaien inguruan galdetuta gazteek botatako erantzunak batzen dituzte. Gasteizen, Bilbon, Aretxabaletan, Arrasaten eta Durangon egon dira.

Zer da 'Barratik kalera'?

Elene: Eskolako lan moduan hasi zen ekimena da, eta jendeak gustuko zuela ikusita, saio gehiago eskatzen zituztela ikusita, aurre-

ra jarraitu du. Entreenimendurako produktua eskatu ziguten, eta argi genuen kale inkestak egin gura genituela. Gaztelaniazko hainbat bideo ikusten dugu, baina euskaraz ez dago horrelako edukirik, eta garrantzitsua iruditzen zaigu euskaraz ere askotariko produktuak eskaintzea. **Hasieran, barra baten atzetik egindako galderetan oinarrituriko saioa zen.**

Lucía: Bai. Tokian tokiko espezialitatea probatzeko saioa egiten genuen eta, azpiatal modura, kalean jendeari hainbat gairi buruz egindako galderak sartzen

genituen. Ikusita bigarren horrek zuela arrakastarik gehien, horri eutsi genion. Bada, orain, parranda giroan askotariko gaii buruzko kale inkestak osatzen dute 'Barratik kalera'.

Zein da helburua?

Lucía: Jendeak bideoekin disfrutatzen badu, lan horregaz jarraitzea. Proiektuak arrakasta izatea guretzat ere onuragarria da, gure ikasketetarako, esperientzia hartzeko. Asko ikasten gabilta.

Elene: Bai, eginaz ikasten da. 'Barratik kalera'-ko zenbait bideo oso biralak egin dira.

Lucía: Bai, guk ere flipatu egin

dugu. Lehenengo elkarrizketak Gasteizen grabatu genituen, eta orduko bideo batek 283.000 bistaratze izan ditu. Eta Bilbon egindako beste batek 380.000.

Zein da epe laburrerako erronka?

Lucía: Beste bideo bat ere biral egitea lortzea (barrez).

Izandako oihartzunak harritu egin zaituzte?

Elene: Itzelean. Ez genuen inondik inora espero.

Lucía: Asko! Unibertsitaterako egin behar izan dugun lana izan delako erantzun dute askok, baina gero bideoa kentzeko eskatu digute batzuek. Hori ere gertatu zaigu. Eta arazorik barik kendu ditugu, jakina.

“Eskolako lan moduan hasi zen ekimena da 'Barratik kalera', jendeak gustuko zuela ikusita, aurrera jarraitu duena”

Mikrofonoa hurbildu eta lotsarik barik erantzun dizute. Askotan kontrakoa gertatzen da.

Elene: Denerik dago. Egun batean ilara dugu zain, eta bestean ezezkoak baino ez ditugu jasotzen.

Lucía: Apur bat ezagun egin garen, orain euren showa egitera etortzen dira batzuk.

Zein da gogoan duzuen pasarterik bitxiena?

Lucía: Batek esan zigun taberna bateko komunean zegoela taberna itxi zutenean. Pertsona berak Durangon errekarra jausi zela ere esan zigun. Mugikorra galdu zuen eta Ertzainen komisariara joan zen goitik behera bustita. Badago errekerre jausteko moduko lekurik Durangon?

Jai giroan sentimenduak goستن dira, gizontasunarenak adibidez.

Lucía: Gizontasunarenak bai! (barrez).

Elene: Laguntasunarenak ere bai.

Non ikusiko zaituztegu berriro?

Elene: Ez dakigu. Pintxopoteren batean...

Lucía: Gasteizen edo Durangoko Azokan.

Lau-hortza

Mertxe Mujika
Balanzategi
AEK



Jarri txapa, eman txapa!

Heldu da azaroaren 18a, heldu da hitzez ekiteko garaia. Gutxienez abenduaren 2ra arte soinean daramatzagun txapei so eginez ibiliko gara. Belarriprest da, beraz, euskaraz egingo diot, ahobizi da, hortaz, euskaraz egingo dugu berba.

Hurrengo 15 egunetan hirugarren Euskaraldian murgilduko gara, eta ez gara, ez, hutsetik abiatuko. Aurreko edizio biek utzi zuten aztarna, eta norberaren bizi-penek ere eragin handia daukate Euskaraldiarenganako jarrian. Esango nuke, asko okertu gabe, asko garela Euskaraldian parte hartu eta, gehiago edo gutxiago, lortu dugunak hizkuntza ohiturak aldatzea, hobetzea.

Lorpena da, dudarik gabe, ari-keta bera egitea; ikustea euskaltzaleak zelan antolatu garen, elkar-lanean, ekimena posible egiteko. Bestalde, ezin albo batera utzi nazio ikuspegia. Tamalez, ez daukagu ekimen gehiegi Euskal Herri osora hedatzen direnak; handiena Korrika izango da, ea Euskaraldia ere bide horretan jartzen dugun!

Hirugarren Euskaraldiaren atarian, gainera, maiz entzuten dugu erabilera trabatuta dagoela, eta egiturazko hutsuneak daudela traba hori gainditzeko. Nire ustez, kontua ez da erabilera ez izatea ezagutzaren parekoa; kontua da egun dauden baldintzetan oso zaila dela erabileran aldaketa nabarmenak ematea.

Hirugarren Euskaraldian sartuko gara, milaka izango gara ahalegin praktikoa egiten ari-tuko garenak, euskara gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzen.

Etor dadila Euskaraldiarekin euskara erabiltzeko bulkada: eragin dezagun erabiltzeko baldintzetan, ariguneek sor ditzatela erabilera eremu gehiago. Jantzi ditzagun kaleak koloreekin, zipritin ditzagun bazterrak euskararen doinuekin. Jarri dezagun txapa, eta eman dezagun txapa euskaraz!

SAN
ROKE
BARRIA

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.



Proiektu berria Durangon,
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41
www.sukia.com